



Bost eguneguz dantzari bihurtu dira Altsasuko eta Etxarriko hainbat ikasle / 22-23

Hamalauna udal eta kontzeju osatuko dira hauteskundeetan, bana berritu gabe geldituko dira / 12

Altsasuko loreontzien komunitate zaintzarako deia egin du Babestutako Gizarte Enpleguak / 11

Javier Borregak eta Miguel Angel Arizteguik Skoda Titan Desert erronkan parte hartuko dute / 18-19

Makusai, doinuak eta letrak nahasten dituen eta izaera propioa duen Arakil aldeko taldea / 21



Berritasunak

Autobus zerbitzu berria osteguneguz jarriko da martxan / 8

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Legediak larrialdi planen hierarkia ezartzen du, guztiek koordinatuta eta integratuta egon behar dute. Larrialdi bat jazoz gero, aginte bakarra funtsezkoa da, nahitaezkoa da ahots bakarrak larrialdiari aurre egiteko neurriak antolatzea. Estatuak erkidegoak eta erkidegoek udalak behartzen diete halako planak egitera.

Nafarroako Baso Suteen gaineko Larrialdietako Babes Zibilaren Plan Berezia (INFONA) 2022an homologatu dute, hala Foru Komunitatean 1999az geroztik indarrean den sute plana eguneratu dute. INFONA 2022 Plan berriaren bidez, pertsonak eta ondasunak babestu nahi dira ikuspegi proaktiboarekin, herri guneeetan eta oinarritzko azpiegiturretan suteen eragina murrizteko.

Planak arrisku handiko eremuetan dauden 85 herri identifikatzen ditu, eta baso arriskuko udal planak izan beharko dituzte. Horien artean daude Arakil (udako suteei aurre egiteko plana egin behar duena), Irurtzun (uda), Uhartea Arakil (negua eta uda), Lakuntza (negua eta uda), Iturmendi (uda), Altsasu (negua). Gainera, beste 85 udalerriri planak egitea gomendatzen die, haien artean Arruazu dago. Besteak beste, horiek sustatzen dabil Jose Javier Boulandier Herrera altsasuarra.

Zergatik egin behar izan dituzte udal batzuek sute planak eta beste batzuek ez?

Aldeak daude. Arriskuaren ekuaizioan sartzen diren faktoretako batzuk dira arriskua bera eta kalteberatasuna. Babes Zibilaren ikuspegitik pertsonak, animaliei eta azpiegiturei erreparatzen diegu. Baso sutearen ardurua Ingurumen Departamentuarena da. Nafarroan sute arriskua neurritzkoa da, baina kalteberatasuna handiagoa da. Zergatik? Baso barruan dauden baserriengatik, hiri eremua Nafarroaren %4 besterik ez delako, etxeak basotik gertu daudelako, azpiegiturak basoen erditik pasatzen

"Gure helburu nagusia kaltetutakorik ez egotea da"

JOSE JAVIER BOULANDIER HERRERA BABES ZIBILEKO ETA LARRIALDIETAKO ZERBITZUAREN ZUZENDARIA

Bileren artean, sute simulakroa, prestatutako tresnen baliagarritasuna aztertze

direlako, gasolindegia basotik gertu dagoelako... Kalteberatasun horrek arriskuan jartzen ditu gizarte gisa garatzeko garrantzitsuak diren hainbat puntu kritiko. Esaterako, Ezkabako joan zen urteko sutearekin arriskuan izan ziren adinekoen egoitza bat, errepikagailu bat, Osasunbidearen botika biltegia edo Iruñerriko tokiko garraioko autobusen biltegia. Argindarrak gabe geldituz gero, behar bada, adinekoen egoitzan arnagailua duten pertsonak eragin lieke. Altsasun, esate baterako, Baiko-lar, Iñigo Aritza ikastola... Urdiainen, bargatik gertuen dauden etxeak... Egoera zailak sor litezke.

Horregatik, nahiz eta antzeko basoa izan, herri batzuek arriskuan egon litekeen azpiegituraren bat dute. Halako azpiegiturak

"NAFARROAN SUTE ARRISKUA MODERATUA DA, BAINA KALTEBERATASUNA HANDIAGOA DA"

dituzten udalerrietan arrisku maila igo egiten da. Horregatik, udal batzuek egin beharra dute eta besteek ez.

Gainontzeko zortzi udalek plana egin beharko lukete?

Gugatik denek balute, askoz hobe. Behartuta ez zegoen udal baten plana homologatu dugu dagoeneko. Halako planak egin dituzten, guk guztiei aholkuak eta laguntza teknikoak ematen dizkiegu. Egin behar izan dutenei dirulaguntza eman diegu. Guk ere gure mugak ditugu eta behartuta dauden udalekin bildu gara. Jarrera oso ona izan dute. Bestetik, planak berrikusi egiten dira, dinamikoak dira.

Zenbat denbora dute plana egiteko?

Bi urte; udalak egiten ari dira. Beraien baliabideekin egin dezakete, edo enpresa bat kontratatuta. Guk planek kalitate bera izatea ahalegintzen ari gara. Dirulaguntza ematerakoan hainbat faktore izaten ditugu kontuan, besteak beste: udalen gaitasuna, suhiltzaileen parketik urrutien dauden herriak, sute gehiago izan dituztenak eta populazio gutxien dutenak. Kalteberatasun

handiena dutenen alde egin dugu eta irizpide horiek defendatzea ere kostatzen da.

Plana eginda, zer?

Planak su itzalgailuak bezalakoak dira. Behartuta gaude eta paretan zintzilak ditugu. Baina su itzalgailuak nola funtzionatzen duen jakin behar da, aldian behin berraztertu behar da... Planekin gauza bera. Baina planak ziurrenik ez gaitu babestuko, ez du eragotziko hildakoak eta kalteak izatea erabiltzen ez badakigu, jendea horretan trebatzen ez badugu, jendeak egoera ez badu ulertzen. Horrelakorik egiten ez bada, hobe planik ez egitea. Bestetik, behin planak homologatuta, garagartzaroen simulakroen bat egin nahi dugu. Herritarrek nola parte hartzen duten testatu nahi dugu. Plana izatera behartuta ez dagoen udalerriri batean

"SUTEEN KONTRAKO UDAL PLANEKIN UDALEI 'BEGIAK ZABALDU' NAHI DIZKIEGU"

eginen dugu. Halakoekin elkarbizitzaren ikasi beharra dugu.

Despopulazioa eta suteak, lagunak? Bai (barrez). Arazoa oso konplexua da. Landa eremuaren hustean eragingo duten politikak ezarri behar dira. Baso masa asko handitu da Nafarroan azken 20 urteetan, lantzeari utzi direlako partzela pribatuak edota publikoak, ordenantza faltagatik, esku sartzerik ez duelako izan... Edozein ibarren XX. mendeko 50eko hamarkadako argazki bat egungo batekin konparatuz gero ikusiko dugu basoa ibar hondora jaisten ziurrenik. Horrek tartean sartzen gaitu, erregai gehiago dagoelako, utziago dagoelako... Horrek su hartzen duenean arazoa da. Horregatik, udal planekin udalei "begiak zabaldu" nahi dizkiegu. Ordenantzak eta jarduerak egin ditzatela etxeetatik eta azpiegiturretatik gertuko puntu jakinetan erregai karga mugatu edo pixka bat murrizteko.

Neguko eta udako suteak bereizi dituzte.

Neguan izotzak lehortzen duelako. Udan euririk ez badu egiten eta bero boladak badaude landaretza lehenago lehortzen da eta su hartzeko prestatuago dago. Bero boladen definizioa garila eta agorrilean izaten direnendako dira. Baina, dagoeneko, apirilean bero kolpeak izaten ari gara. Urtaroei dagokienez, elkartzen ari zaizkigu eta, dagoeneko, ez daude hain argi lau urtarokoak. Orain gehiago gaude neguan eta udan. Eta negua ez da hain gorria. Lizarraldeko udako suteak Urbasa-Andiaren hegoaldean gelditzen ziren. Aldian behin etortzen diren bero sapa eraginez basoen lehortasun indizea gero eta altuagoa da. Parame-troak aldatzen ari dira, bizitzen ari garena zerbait berria da. Aurre egin behar diogu, horregatik, guztiengana iritsi nahi dugu, egoera uler dezaten. Suteetan aditua den Marc Castellnouk dio sute handietako batek Pirinio guztia harlezakeela.

Udarekin basoan sua egiteko eta bestelako debekuak etortzen dira. Estatuak legediarekin jarduerak batzuk urte guztian debekatuta



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Jose Javier Boulandier Herrera bilera batean azalpenak ematen. NAFARROAKO GOBERNUA

"BERO SAPEN ERAGINEZ BASOEN LEHORTASUN INDIZEA GERO ETA ALTUAGOA DA"

"BASO SUTEAK POPULAZIOARI ERAGITEN DIONEAN, HERRITARRENGAN ZENTRATZEN GARA"

"KATASTROFEA DESORDENA DA, GUZTIOI DAGOKIGU AHALIK ETA TXIKIENA IZAN DADILA"

Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua

Zenbat zarete?

Oso gutxi, lau teknikari eta ni, arduraduna. Baina Babes Zibila guztiok gara. Baina planez aparte, segurtasunari buruzko jakintza kolektibo hori zabaltzeko gai izan behar dugu. Nire iritziz, aurrekontuetan larrialdietara lotutako segurtasunerako, babes zibilerako, ez da nahikoa aurrekontu izaten.

Noiz sortu zen?

Konstituzioarekin batera, zerbitzuan ez daramagu urte asko. Zerbitzu txikia gara beste batzuen aldean. Horregatik, autobabesa eta norberaren segurtasunaren kultura hedatzen lan egin behar dugu. Planak sortu, eta haien arteko loturak egin... Alkateak herriko babes zibilaren arduradun nagusiak dira. Batzuek ez dakite oraindik, eta pedagogia lan handia egin behar izaten dugu. Horretan ari gara.

Ikasi beharra dago?

Prestakuntza ere behar da bai, hasiera batean autosufizienteak izateko. Esaterako, elurra egiten duenean ezin diogu administrazioari eskatu gure etxe pareko espaloiko elurra kentzeko. Horrela, gizartea eta zerbitzuen kolapsoa dator. Ez dago horretarako nahiko giza baliabiderik. Arriskuaren eta autobabesaren kultura izan behar dugu, ezohiko zerbait gertatzean gauzak errazteko. Hauteskunde kanpainan alderdien agendan gai hauek egotea espero dut.

egonen dira. Araudi horretan leihoak zabaltzen saiatzen ari gara. Jarduera batzuk baso sute arriskuaren mailari lotuago egonen dira. Hori guztiak gobernu hainbat departamendurekin lantzen ari gara orain. Departamentu bakoitzak udan egiten dituen jardueren azterketa egiten ari da eta sute arrisku altua edo muturrekoa denean, mugaren bat jarri beharko dute. Jakina, eta norberaren ardura. Zirriborroari itxura ematen ari gara eta departamentu bakoitzak bere eskumeneko esparruari erreparatuko dio. Lehenbailehen argitaratu nahiko genuke, garagartzaroan baino hobe maiatzean balitz.

Joan den urteko udako suteak, zer?

Suteen gaiak kualitatiboki jauzi egin du. Seigarren belaunaldiko suteez ere hitz egiten da. Bosgarren belaunaldikoak dira aldi berean sute pila ditugunean. Hori izan genuen: 12 orduetan kasik dozena bat sute. Eta bi orduetan zuzenean biztanleriari eragiten zieten sei sute izan genituen. Baso suteak populazioari eragiten dionean, herritarrengan zentratzen gara. Basoa bigarren lehentasuna bihurtzen da, erretzen jarraitzen du eta 60 km orduko haizeak lagunduta, suteak "ihes" egiten du pertsoneri

arreta eskaini behar diezulako. Gure helburu nagusia hori baita, kaltetutako pertsonarik ez egotea.

Egoera aldatu da. Orain arte ia ez gara sekula 40 gradutan bizi izan. Baina 40 gradurekin gauzen jokabidea ez da lehengoa. Lehen tximistek suteen %5 edo gutxiago eragiten zituzten, orain %11ra igo da Amerikako Estatu Batuetan. Zergatik dira protagonista ekaitz lehorretako tximistak? Lehen tximistak zerbait jotzen zuenean kosta egiten zitzaion su hartzea, baina 40 gradurekin errazago hartzen du. Altsasuko Sanpedrozelaian su hartu zuen haritz harekin gogoritzen zara? Ez da tximista gehiago erortzen direlako, jotzen duen tokiaren baldintzak desberdinak direlako baizik.

Maiatz aurretik dagoeneko beroa bertan da, uda etorriko da... Joan den urtean historiara pasako diren suteak izan genituen. Aurten ez dakigu, baina probabilitatea, txikia izanagatik, hor dago. Egoerak urte lehorrerantz garamatza: estres hidrikoa ez da berreskuratuta, urtegiak %60an daude %100ean egon beharrean, mendiak ur faltagatik nahikoa estresatuta daude... Zer gertatuko da? Prestatu beharra dugu.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

Ziurrenik gainezka eginen diguten egoerak izanen dira. Katastrofeak beti gainezka egiten digu, desordena da, eta autoritateei eta pertsona guztioi dagokigu desordena hori ahalik eta txikiena izan dadila. Adituek diotenez, heldu diren larrialdi edo arrisku egoerak ziurgabetasun handikoak dira, arrisku anitzetakoak, gero eta intentsuagoak eta sarriago gertatzen direnak. "Loteriako saria" tokatzeko aukera gehiago daudela dirudi. Hala, korrik ez dugu bizi izan. Adituek ez dute garbi aurreikuspena meteorologia edo klima egoera makur hipotetikoetan.

Herritarrek, zer?

Babes Zibilean pentsatzen dugu herritarrek parte hartu behar dutela, informatuta eta trebatuta egon behar dute.

Informatuak izateko zer erabiliko da, alderantzizko 112?

Ez, ES-Alert ez da horretarako erabiliko. Europak ezarritako sistema da hori. Mezua bidaltzen hiru proba egin ditugu eta mezua ez du herritarren %100ek jaso. Hala ere, ES-Alert bidezko jakinarazpenak aparteko kasuetarako lirerateke. Ezin da egunero erabili, bestela artzaina eta otsoarena gertatuko da eta, azkenean, inork ez lioke kasurik eginen. Informazioa nola eman aztertzen ari gara: sirenekin, poliziaren megafonia, telefono finkoetara dei masiboa egitea...

Prestakuntza?

INFONA 2022 Planaren barruan eta Hezkuntza Departamentuarekin batera, suteei buruzko doako prestakuntza ikastaroak emango ditu Nafarroako 17 udalerritan. Ebakuazio batean nola jokatu, sute ahoen kokapena eza gutu, nola koordinatu edo kea isolatzeko teknikak eskuratzea dira ikastaroen helburuetako batzuk, baita baso suteen hasieran herritarrek nola jokatu ere irakatsi nahi diegu. 30 orduko iraupena dute. Ikastaroetako bat Uharteko Arakilen da eta edozein sakandarrek eman dezake izena. Maiatzaren 15etik garagartzaroren 2ra izanen da. Izena emateko business@greentechfactory.es e-posta helbidera idatzi beharra dago. Hogei plaza daude. Ikasitakoarekin, norbera gauza txikiez arduratzeko aukera izan dezake, eta handiak heltzen diren ziurrago egonen dira eta nola jokatu jakinen du. Uholdeen kontrako planen eskarmentua dugu: udalek egokiago jokatu dute. Horregatik, herritarrengana

eraman nahi dugu prebentzioaren kultura hori, horretarako esku bidea dute, eta haiek parte hartzaile izatea nahi dugu.

Parte hartzea, beraz.

Udalek eta herritarrek badakite non dauden kolektibo zaurgarriak. Hori asko interesatzen zaigu. Katastrofe baten eraginpean lau, hamar edo hogeit hamar badaude, gu, Iruñetik ez gara pertsona zaurgarri guztiengana iristen. Askok interesatzen zaigu. Horretaz jabetu beharra dute udalek, eta tresnak edo konponbideak jarri beharko lituzke. Honek denok ukitzen gaitu: bere ardurapean adinekoa duen pertsonatik hasi, udalarekin, Babes Zibilearekin eta estatuarekin segi eta Europaren laguntzarekin bukatu arte.

Baina...

Gaudenak gaude eta ditugun gaitasunak ditugu. Iruñean gaude eta ez dugu ikusten herrietan zer ari den gertatzen. Alkateei azaldu diegu zer bait gertatzen zaien bakoitzean elkarrekin komunikazio zuzena izatearen garrantzia, udalak akonpainamendua, babesa senti dezaten. Eta uler dezaten ur hegazkin bakarra badugu eta lau laguntza dei, erabaki bat hartu eta herri batera bidali beharko dugula hegazkina gehiago ez dagoelako. Hori, teorikoki, ahalik eta modu objektiboenean egin behar dugu. Gauza bera gertatzen zaigu guri ministerioari aparteko baliabideak eskatzen dizkiongunean: eskaera objektiboki justifikatu behar dugu. Larrialdietarako baliabideak mugatuak direnez, gainontzeko erkidegoekin lehiatzen gara. Eta baliabide asko jarrita ere, teknikariek diotenez, etorkizuneko baso suteek askatuko duten energia kopuruagatik haiek itzaltzea ezinezkoa izanen da. Teknikoek egin dizkiguten analisiak denen eskura jarri ditugu.

"HERRITARRENGANA ERAMAN NAHI DUGU PREBENTZIOAREN KULTURA, PARTE HARTZAILE IZATEA"

"ETORKIZUNEN SUTEEK ASKATUKO DUTEN ENERGIA KOPURUAGATIK HAIK ITZALTZEA EZINEZKOA IZANEN DA"



Jose Javier Boulandier trafiko babes zibileko koordinazio bileran. NAFARROAKO GOBERNUA

Uholdeei aurre egiteko planak

Nafarroako uholdeei aurre egiteko Larrialdi Plan Bereziarekin bat etorritik 45 udalek, tartean Arruazu, Altsasu eta Ziordikoa, uholdeen kontrako plana egin, haien homologazioa lortu dute. Indarrean jartzea da hurrengo pausoa. Plan horiek udal bakoitzaren eremuan ibai uholdeengatik larrialdien aurrean baliabide eta zerbitzu propioen antolamendua eta jarduketak definitzen dituzte. Dokumentu bakoitzak udalerririk bakoitzean dauden bitartekoak eta baliabideak islatzen ditu, eta elementu eta eremu kalteberenak identifikatzen ditu.

Uholdeen kontra ere, planak.

Zero arriskurik ez dago, eta arrisku horrekin bizitzen ikasi behar dugu. Gerta liteke noizbait arrisku hori lehertzea eta konpromisoan jartzea, baita bizitza ere. Beraz, euriteak daudenean meteorologia iragarpenari adi egon, ibilgailuak ibai ondoan ez aparkatu...

Uholdeen urtaroko kontua izanen dira edo ez?

Zientzialariek diotenez, ziurgabetasun handia dago. Fenomenoak maizago gertatu behar dira, eta biziagoak; bai

euririk askorekin edo gutxirekin, bero handiarekin edo ez. Gero eta maizago gertatzen direla ikusten da. Bero kolpeak 2007an, 2015 eta joan zen urtean. Euriarekin gauza bera, 2021eko abendua hor dago. Kolpean eta istant batean botatzen ari den euri kopurua aurreko mailak gainditzen du, halakoa gertatzeko probabilitatea handitzen ari dela diote zientzialariek.

Urdalurrek zergatik?

Urharkak ezaugarrien arabera sailkatuta daude, eta batzuk plana izatera behartuta daude. Plana egiterakoan balizko muturreko egoerak kontuan hartu behar dituzte, eta egoera mailak zehazten dira. Egoerarik makurrena irudikatzeko uharka gainezka beteta dagoela edo sekulako euriteak egin dituela hartzen da kontuan; uharka haustearen denaren hipotesia egiten da. Presa haustek eragindako uholde planetako 3. egoera litzateke. Halakorik ez da gertatzen egun batetik bestera. Gainera, egoera larriagotu daiteke edo normaltasunera bueltatu.

Presaren plana eta inguruko herrietako uholdeen

kontrako planek bateragarriak izan behar dute. Presaren egoeraren arabera kudeatzaileak jakinarazpen mezuak bidali beharko dizkio herriari edo dagokien erakundeei, alde aurretik neurriak har ditzaten: ibilgailuak ibai ertzetik kentzea, zenbat jende ateratzen den etxetik jakiteko eta hori behar bezala kudeatzeko, edo dena delakoa.

Hautsiko balitz?

Urharkak hainbat sentsore dituzte eta nahikoa beta izanen genuke jakinarazpena polizien eta, bereziki, udalen bidez jakinarazteko. Halakoetan beti segurtasun tarteak izaten da planak ezartzeko. Muturreko hipotesia batean, uharka haustear legokeenean sirena entzuten litzateke, azken uneko gatzigua da inguruan leudeken suhiltzaile, polizia eta bestelako langileek hanka egin zezaten. Amerikako Estatu Batuetan berriki ikusi dugu Urdalurren moduko uharkak ez direla horrela hausten, nahiz eta kalte handiak izan.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

CHATGPT probatzen: udal hauteskundeak Sakanan

CHATGPT testuak sortzeko aplikazio "berria" dela eta, euskarazko proba xume bat eginda, ordenagailuak honako hau:

Instrukzioa: euskaraz. udal hauteskundeak direla eta, iritzi artikulua, Nafarroako Sakanan, bozkatzeko beharra azpimarratuz, nahiz eta alderdien politikekiko kritikoa izan. Gaiak: euskara, lana, feminismoa, AHTa eta justizia soziala. 1.600 karaktere.

Erantzuna: Nafarroako Sakanan udal hauteskundeak hurbiltzen ari dira, eta herritarrek bozkatu nahi duten kandidatura hautatu beharko dute. Honek gure eskubide demokratikoei erantzuteko aukera ematen digu, baina baiezkoa da hainbat errealitate konpontzeko erronkak izan ditugula.

Euskal hiztunen eskubideak gai garrantzitsua dira gure herrialdean, eta hori ezin da ahaztu hauteskunde hauetan.

Euskaraz hitz egitea, ulertzea eta idaztea euskal kulturaren gainean errespetua erakusten du. Beraz, herrialdeko herri komunitateak, euskal hiztunen eskubideak defendatu eta bermatu behar dituzte, bai euskarazko edukia bermatuz, bai hizkuntza ofizial bezala hartuz.

Bestalde, lan gaiak hauteskundeetan oso garrantzitsua izaten jarraitzen du. Krisi ekonomikoaren ondorioz, lanpostu kopuru handia galdu da eta hauteskundeak lan politikaren inguruan irtenbideak bilatu behar ditu. Eraginkortasun handiko enpleguak sortzea eta kontratu duinak eskaintzea ezinbestekoa da.

Feminismoak gero eta gehiago eraiki dituen herritartasun, justizia eta garapen sozialaren aldeko jarrera beharrezkoa da. Herrialdeko instituzioek hauskortasun patriarkala eta sexista lantzeko eta haustura, indarkeria eta uste erreala guzti horiek desagerrarazteko konpromisoa hartu behar dute.

AHTren alde eta aurka egoten diren alderdiekiko gatazkak sortu dira Nafarroako herritartasunean. Honek eremu guztietan, batez ere ingurumenaren eta herritarren eskubideen aldeko borrokaren zain dauden herriekin bat egitea eskatzen du.

Azkenik, justizia soziala betetzeko, herritartasunaren arteko arteko artean, pobrezia aurkako borroka eta herritartasun ekologikoa altxatu behar dira. Gure herritartasunean, herritarrak dira herritartasuna eragiten duten subjektu aktiboak, eta hori ezin da ahaztu hauteskundeak biztanleriaren interesak ordezkatu behar dituela.

Nafarroako Sakanan, herriaren beharrezko gaitasunak erakusten dituzte. Euskal hiztunen eskubideak, lan gaiak, feminismoa, AHTa eta justizia soziala gai garrantzitsuak dira hauteskunde hauetan. Hori guztiak, herritartasunaren aldeko erabakiak eskatzen dituzte.

Nire erreakzioa: dagoenetik sortzen duenez, munstroa elikatu egin beharko da...

HARA ZER DIEN

Mundutik Sakanara eta Sakanatik Mundura, Zu(k) lagun

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Sakanan izugarriko hizkuntza aniztasuna dago. Makina bat hizkuntza gutxitu. Galtzear dagoen ama hizkuntza bat baino gehiago. Ikusirik zein tamainako altxorra "ezkutatzen" duten guzti horiek, eta munduko esaera askok berdintzen gaituztela... Zer da hau, beraz?

Mundutik Sakanara eta Sakanatik Mundura Zu(k) lagun, bere baitan mezu sakon

eta esanguratsu bat dakarren liburu erraldoi bat da. "Sakanara zatozen ZU-k, Sakana lagun duzu. Aldi berean, Sakanak, ZU zaitu lagun". Hori baita kulturen arteko elkarbizitza baikor baterako beste pausoetako bat.

Ez da liburu arrunt bat, ordea. Beste liburu bat. Ez. Alderantziz, oso liburu berezia da, anitza, inondik inora. Anitza edukian, egileetan, idazkeran eta esan nahian.

Liburuan munduko txoko anitzetako sakandarrek idatzi dituzten 11 esaera jasotzen da. Haien ama hizkuntzetan (idatz daitezkeenak, alegia): euskara, suitzera, italiara, wolofera, arabiera, bulgariara, errumaniera, romaniera... Amazigh-era laster txertatuko da. Idazkeran galtzear dauden hizkuntzak ezin izan dira txertatu: kitxwera, esateko.

Nola sortu da hau? Sakanako herri eta txoko anitzetan dagoen ama hizkuntzen altxorra, Irurtzunen garatzen ari garen Kulturen arteko zikloaren lehen egunerako ekimen berritzaile bezala sortua da, herritarrek proposaturik, Anitzartean-etik beti egiten dugun moduan, noski.

Liburu honek baditu hainbat orrialde idatzi gabe. Eta ibiltaria denez, Anitzartean-etik antolatzen diren ekimenetan, liburuan inork bere sorterriko esaeraren bat gehitu nahi balu, badu aukera. Gonbidapena da haren ama hizkuntzan egitea, posible bada.

Pasa den apirilaren 23an, liburuaren egunaren baitan, Altsasuko II. Elkartasun Azokan liburu osatzerik izan zen.

Ez da hau Anitzartean-etik argitaratutako liburu bakarra. Hortaz...

GUTUNA

Apaizak, borrokaren lehen lerroan

ARITZ IGOA GOÑI ETA AMAIA ERDOZIA ANSO

Apaiz Kartzela filma ikusteko aukera izanen dugu igande honetan Etxarri Aranatzen, Pello Mariñelarena presoaren heriotzaren hogeita hamargarren urtemugaren harira. Filmak 1.968 urtetik 1.976ra Zamorako espetxean preso egon ziren euskal presoekin bizipenak kontatzen ditu. Bertan egon ziren preso, besteak beste, hemeretzi urtez Etxarrin bizi izan zen Jon Etxabe eta Xabier Amuriza bertsolaria. Igandean Xabier Etxarrin izanen da filma ikusi

ondoren solasalditxo bat eskaintzeko. Etxabek esker oneko agurra bidali du baina ezinezkoa zaio etortzea. Zamorakoa propio apaizak gatibu gordetzeko egokitu zen espetxea izan zen, Vatikanok eta Franco diktadoreak egin zuten hitzarmen batetik sortua. Adibide bakarra da munduan. Berrogeita hamahiru apaiz egon ziren preso Zamoran, gehienak arrazoi politikoengatik preso zeudenak. Euskaldunekin batera, "konkordatu kartzela" honetan egon ziren Madrileko aldirietan langileen defentsan nabarmendu ziren "apaiz gorriak"; Asturias, Galiza eta Herrialde Katalanetan lan egiten zutenak ere bai (Lluís Maria Xirinacs apaiz eta ekintzaile katalanista ezaguna, adibidez).

Bi aldiz preso sentitzen ziren apaizak Zamoran. Francoren preso eta Vatikanoren beraren preso. Gogor borrokatu ziren handik ateratzeko. Ihesaldi bat ere prestatu zuten, azken momentuan erori zena. Jon Etxaberen hitzak dira, *Zamorako landan* liburuan jasotzen direnak: "Urteetan taxuzko eskabideak alferrikakoak zirela ikusita, muturreko bidea hartu zuten apaizok: mutin bat lehenik, gose greba jarraian. Konkordatu kartzelarekin bukatzea zuten helburu. Ez zen une hartan xedea lortu, baina urte gutxiren buruan, Diktadorea hil ondoren, kartzela hura desagerraraztea izan zen politikoen lehen erabakietako bat".

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

xxxx

Kolaboratzailea:

xxxx

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Etxarri Aranazko musika eskolak badu igogailua

Etxarri Aranazko Udalak joan zen urteko aurrekontuetan musika eskolan igogailua jartzeko diru poltsa aurreikusitua zuen. Eraikina zaharberritu zenean igogailua jartzeko zuloa prest utzi zen. Han igogailua jartzeko lanak nahi baino gehiago atzeratu badira ere, Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi du dagoneko igogailua martxan dela.

Lan horietara 20.000 euro bideratu ditu.

Bestetik, argiteria publikoa berritzeko lanen zatirik handiena eginga dagoela jakinarazi du Silvia Marañon Chasco alkateak. Bost aginte eta babes koadro berri dira: Aldapasoro auzoa, Arluzepe, Zugarreta, Kale Nagusia (kioskoa) eta Zumurdiñeta industrialdean. Gainera haietatik elikatzen diren 86 LED argi jarri dira. Lan horiek emateko udalak 134.509,27 euroko diru poltsa zuen aurreikusia.



UTZITAKOIA

Lizarraga zoriondu du udalak

Juana Lizarraga Arbizu etxarriarrak 100 urte bete zituen martxoaren 30ean. Lizarragak bi alaba eta bi iloba ditu. Gaur egun Mutiloako egoitze batean bizi da eta pozik hartu du udalak urtebetetzeagatik bidalitako oparia: lore sorta bat, herriko armarridun ttattarra eta alkateak udalbatza guztiaren izenean zorionduz idatzitako eskutitza jaso du.



Emakumezko dorrobarra umea silletan eramaten. ARTXIBOA

Ergoiena Bizirik taldea sortu dute

Ergoendar talde bat biltzen du eta ibarreko hiru herritan haurrak elkar ezagutzeko ekimenak egiteko helburua du. Taldekideek heldu eta adinekoei zuzendutakoak antolatzea ere buruan dute

DORRAO

Dorraon herriari bizitza emateko eta haurrak kalera atera eta jolas zitezen, mugimendua sortu zuten dorrobarrek pandemia aurretik. Izan ere, gaur egun Dorraon gaur egun 14 bat haur daude. Ergoienako Udalak uda guztietan ibarreko haurrentako Ergoienan Euskaraz aisialdi ekimena antolatzen du. Eskaintza hartan izena eman zuten familiek dorrobarren esperientziaren berri izan zuten. Ideiaren egokitasuna ikusi zuten eta ibar guztira dinamika bat zabaltzea egokia izanzen zela pentsatu zuten.

Esan eta egin, horretan jarri ziren Ergoienan Euskaraz eskaintzaren abaroen elkartutako

sei ama. Ideiari forma eman eta Ergoiena Bizirik sortzea erabaki zuten, aurrean sortu dute. Haren helburua da urtean zehar ibarreko hiru herrietan ekimenak antolatzea, haietan ibarreko haurrak elkar ezagutzeko aukera izan dezaten. Eta, bide batez, familiak eta ibarreko jendea ere. Jarduera egutegia prestatzeko Ergoienako Udalaren atea jo zuten eta haren laguntzaz, hiru data dituen ekimen egutegia antolatu dute. Bestalde, aisialdi programan joan zen urtean 20 haur izan ziren. Aurrematrikulazioa ikusita aurrean gehiago izanzen direla jakinarazi dute taldekideek, haur kopurua gora baitoa.

Egitaraua

Maiatzak 6, larunbata
18:00 Ameliren ipuin musikatu, Unanuko Denok bat elkartean.

Garagarrikak 3, larunbata
17:00 Robotika, Dorraoko gizarte aretoan.
18:15 Sormen tailerra, Dorraoko gizarte aretoan.

Irailak 30, larunbata
19:00 Hutsun txalapartariekin saioa, Lizarragako frontoian.

FLORES S.L.

Utubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

TX TXARTEL

www.txartel.net

Konsumitzen dugun energia elektrikoa iturri berriztagarrietatik dator eta erabiltzen dugun papera baxo irabazkorrakoa da.

Estalpea eginga

Arbizuarrek martxo akaberaz geroztik estalpea dute plazan. Arbizuko Udaletik jakinarazi dutenez, estalpeko lanak despedituta badaude ere, bere barruko espazioa behar bezala jartzea falta da oraindik. Batetik, aulkia jarriko dira estalpearen azpian. Eta, horrekin batera, lurrean haurrentako jolasak margotuko ditu udalak. Hala ere, hori guztia zehazten hari dira udal ordezkariak.



"Kezkak eta erronkak izanen dituzte hizpide"

IÑIGO ORELLA ALTZUETA ANDRA MARI IKASTOLAKO PEDAGOGIA ZUZENDARIA
Hezkuntza ardurak, Nafarroa Oinez eta antolatutako jardunaldiak guztiz lanpetuta badute ere, azken horren berri emateko tartea hartu du

SAKANA

Nafarroa Oinezek, Sakanako Mankomunitatearen laguntzaz, *Eman arnasa (gureari)* jardunaldia antolatu du larunbaterako. Antolakuntza errazteko *labur: eus/Pgqje* galdetegi laburra bete behar da.

Lastailaren 8ko ospakizunaren aurretik, zergatik jo duzue beharrezkoa den hausnarketa egitera? Nafarroa Oinez eguna euskaltzaleen festa handia izanen da, baina, urte osoan zehar era guztietako jarduerak antolatzen ari gara. Nafarroa Oinezaren helburuekin bat, ezinbestekoa iruditu zitzaigun euskarari eta, bereziki, euskaren arnaguneei



Iñigo Orella Altzueta Nafarroa Oinez en ikur den bozgorailua eskutan duela.

erreparatzea eta, hezkuntza komunitatea garen aldetik, euskarazko irakaskuntzaren egoerari buruz ere hausnartu nahi genuen. Helburu horrekin bi mahai inguru antolatu ditugu, lehenengoa, Euskararen arnaguneeen erronkak eta, bigarrena, Nafarroan D eredu arnaberritzen.

Zergatik euskararen erabileraz?

Azken urteetan handitzen ari da euskaren erabilerarekiko kezka. Nagusiki euskarazko hezkuntzari esker, nabarmen hazi da euskararen ezagutza, baina euskararen erabilera ez da neurri berean igotzen ari. Azken ikerketek erakusten dute euskararen erabileran moteltze bat egon dela eta, are gehiago, euskararen arnagune batzuetan erabilerak atzera ere egin du. Sakanan, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren arabera, 2016tik 2021era euskararen erabilera % 24,8tik % 24,3ra jaitsi zen. Herri euskaldun batzuetan atzerako joera ikusi da. Etxeko erabilerak ere kezka sortu du. Kezka horiek eta datozen erronka berriak izanen dituzte hizpide hiru hizlariak, Alberto Barandiaranen gidaritzapean: Idurre Eskisabel, (Kon-

tseilua); Kike Amonarriz (Topagunea) eta Garikoitz Goikoetxea (UEMA).

Zergatik eta zertarako erreparatu-ko diozue D ereduari?

Azken hamarkadetako euskararen ezagutzaren gorakada ezin da ulertu euskarazko irakaskuntzarik gabe, baina badira urteak Nafarroan euskara hutsezko eredu egonkor dagoela eta zailtasunak dituela hazteko. Lege markoaz aparte, hainbat baldintzak eta neurrik (hizkuntza ereduak, babes instituzionalik ezak, PAI programa hauspotzeak, migrazio fluxuek...) zaildu egin dute euskararen esparru sozial eta geografikoa zabaltzea. Mehatxuak nola bihurtu aukera? Hori izanen da bigarren mahai inguruko hizlarien erronka. Nire gidaritzapean, aditu hauek ari tuko dira: Josu Reparaz (NIE), Nora Salbotx (HikHasi) eta Agur- ne Gaubeka, (Behatokia).

Jardunaldiarekin zer lortu nahiko zenukete?

Adituen laguntzarekin, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak identifikatu nahi ditugu.

Centro Integrado Politécnico
FP SAKANA LH
Ikastetxe Integratu Politeknikoa

Proiektuetan Oinarritutako
Ikaskuntza eta Zerbitzu-Ikaskuntza
Metodologian lan egiten dugu.

Goi Maila (Izena emateko epea apirilaren 24tik maiatzaren 5era da):

- Mekatronika industrial (gaztelera)
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa (gaztelera)
- Haur Hezkuntza (euskaraz)

Erdi Maila (Izena emateko epea apirilaren 24tik maiatzaren 5era da):

- Mantenu Elektromekanikoa (gaztelera)
- Soldadura eta Galdaragintza (gaztelera)
- Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Laguntzea (euskaraz)
- Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak (euskaraz)

Oinarritzko Maila (Izena emateko epea maiatzaren 10etik 19ra arte):

- Merkatal Zerbitzuak

Araubide Bereziko Kirol Heziketa:

- Mendi Ertaina eta Eskalada

Lanbide Heziketa Berezia:

- Merkataritzako Zerbitzu Orokorretako laguntzailea

Oinarritzko Maila,
Erdi Maila eta
Goi Mailako
**ZIKLO GUZTIAK
DUALAK** dira





Irurtzundarrak Iruñera eramane dituen autobusera igotzen. ARTXIBOA

Autobus zerbitzu berria

Sakanako autobus zerbitzu publiko berria maiatzaren 4an jarriko da martxan, ostegunarekin. Arakildarrek eta ergoendarrek Irurtzun eta Altsasurekin lotura izanen dute eskaera bidezko zerbitzuaren bidez

SAKANA
Beste eskualdeetan ezarri ondoren, Nafarroako Gobernuak sustatutako autobus zerbitzu publiko berria Sakanan ezartzeko garaia iritsi da. Gaur egun indarrean dauden autobus or-

dutegiak asteazkenara arte daude indarrean, ostegunetik aurrera autobus ordutegi berriei erreparatu beharko diete autobusa erabili nahi dutenek. Dagokion deialdia egin ondoren, Foru administrazioak La Bu-

rundesa enpresari eman dio Iruñea eta Gasteiz arteko eta Sakanako bidaiarien garraiorako ardura. Beraz, autobus aldataririk ez da izanen. Nahiz eta, hori bai, lau ibilgailu kolore gorrikoak dira.

Gobernuak ibarrerako hiru linea aurreikusi ditu. Bik Iruñea eta Gasteiz lotzen dituzte, herrietan geldituz batzuk, bidea erdi zuzen eginga besteak. Beste linea batek Iruñea eta Ziordia arteko bidea egiten du. Jakina, hiru lineak bi norabideetan egiten dute bidaiarien garraioa. Aldaketak zerbitzuen maiztasu-

nean daude. Gaur egun, astegunetan bederatzita autobus zerbitzu daude Gasteizko norabidean, eta Arabako hiriburutik Nafarroakora, berriz, 11. Ostegunetik aurrera 11 eta 12 izanen dira. Baina astez autobus maiztasuna handitzen bada, asteburuetan txikitu egingen da. Larunbatetan zortzi autobus ibili beharrean sei ibiliko dira. Eta igande eta jai egunetan, berriz, bost beharrean lau.

Eskaera bidezko zerbitzua

Indarrean jarriko den zerbitzuaren berritasuna da arakildarrek Irurtzunera eta ergoendarrek Altsasura joan ahalko direla da. Bi ibarretakoek horrela beste Iruñeko autobusa hartzeko aukera izanen dute. Astegunetan bi lotura egiteko aukera izanen dute eta larunbatetan beste bat. Eskaerapeko garraioa da hori eta autobusa herrira joatea eskatzeko www.laburundesa.com webgunearen edo haren telefono mugikorretarako aplikazioaren bidez (Play Storetik deskarga daiteke) egin behar da eskaera, edo bidaiaren txartela erosi. Beti ere, bidaiaren aurreko eguneko 19:00ak baino lehen egin da eskaera edo erosketa. Erreserbak egiteko beste modu bat da enpresara hots egitea da: 948 221 766, 948 303 505 edo 945 264 626. Beraz, bi ibarretatik Iruñera edo alderantzizko bidea egiteko txartel osoa horrela erosi daiteke. Baita autobus geltokiko txar-

teldegian. Bestalde, Ergoienako Udalak jakinarazi du asteazkenero Altsasuko azokara joan-etorria egiten duen autobus zerbitzua mantendu egingen duela.

Garraio bonua

Nafarroako Gobernuaren beste iragarpena izan da bidaiaren prezio erdian egin daitekeela garraio bonua izanez gero. Izan ere, txartelaren %30 estatuak eta beste %20 foru administrazioak ordaintzen dute. Abonamendu horiek Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Urdiain edo Olatzagutia eta Iruña arteko joan-etorrietarako dira. Altsasuren kasuan Iruñea, Agurain eta Gasteizerako. 20 bidaiako abonamenduak dira eta Burundesaren aplikazioaren bidez eros daitezke.

Beraz, garraio bonuak hiriburura maiz joaten direnei begira dago. Hala ere, txartelak prezio erdian garagartzaroaren 30era arte egonen dira. Bonua dutenak bidaiak garilaren 31ra arte erabili ahalko dituzte. Ondoren gobernuak garraio publikoaren erabilera sustatzeko txartelen erdia ordaintzen segituko duten ikusi beharko da.

Hala ere, txartelen prezioak erdira jaisteak ez dio eragiten ibarren barruan egiten diren ibilbideei. Beraz, Sakanan barrena mugitzeko garraio publikoa erabiltzen jarraitzen dutenek ez dute poltsikoan onurarik sumatuko, ibar barruko bidaiaren txartelak osorik ordaintzen direlako.

Arrosa sareko podcast-ak
Ostialetan 18:00etan eta 22:00etan
arribata eta igandetan
11:00etan eta 22:00etan
www.beleixe.com

**ARAKILDIK
IRURTZUNERA ETA
ERGOIENATIK
ALTSASURA JOATEKO
BI LINEA BERRI DAUDE**



Erreka kaleak herri guztia zeharkatzen du. ARTXIBOA

Erreka kaleko lanak agiri baten zain

Ingurumen Departamentuak oniritzia jasotakoan lanak hasteko aukera luke udalak. Beste bi kaletan lanak egiteko laguntza eskaera erreserban utzi du eta beste bi kaleetakoei dirulaguntza ukatu die Nafarroako Gobernuak

UHARTE ARAKIL

Autobus markesinatik zubiraino zuzen doan kalea da Erreka kalea, Uharteko Arakil iparralde-
tik hegoaldera zeharkatzen duena, 325 bat metro luze. Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsio Planean 2021etik jasoa dago lan hori. Sareak eta zoladura berri-
tu nahi ditu udalak. Dirulaguntza eskaera 2017an egin zuen udalak. Han jasotako aurrekontua, ordea, motz gelditu zen pandemia eta Ukrainako gerraren ondoren izan den prezioen hazkundearekin. Aurreikusitako aurrekontua bikoiztu egin zuen, 1,6 milioira iritsiz.

Uharteko Arakilgo Udalak foru administrazioko hainbat ate jo eta zenbait bileraren ondoren, lanendako finantziarioa lotzea lortu zuen. Gaur egun, lanak emateko pausoa Ingurumen Departamentuaren zain dago. Karrikaren izenak dioen moduan, haren azpitik kanalizatutako erreka bat pasatzen da. Lurpeko errekek izan dezakeen ur ema-

riaren inguruko ikerketa egin zen eta ondorioak aztertzen ari dira departamentuan. Alkateak azaldu duenez, "hauteskundeak bertan dira eta aurretik guztia ixteko ate joka gabiltza".

Lanak eginez gero, Uharteko Arakilgo Alde Zaharrean berritutako litzatekeen lehen kalea izanen litzateke. Nafarroako Gobernuak 2023-2025 Tokiko Azpiegitura Planaren berri eman zuen apirilaren 21ean. Foru administrazioak onartu ez zituen inbertsioen artean daude Uharteko Arakilgo Udalak Felipe Gorriti eta Larrainbide kaleetako ur hornidura, saneamendu eta euri uren sareak berritzeko lanak.

Uharteko Arakilgo Udalak, bestetik, Itxesi kaleko hornidura

ITXESI ETA ERREKABITARTE KALEETAKO LANAK ERRESERBAN UTZI DITU GOBERNUAK

sarea eta kale bereko eta Errekabitarre karrikako sareak berreztzeko dirulaguntza eskaera egin zuen deialdi berean. Haren aurrekontua 413.313,47 eurokoa litzateke. Toki Administrazioa eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiak lan hori erreserban utzi du. Alkateak azaldu duenez, "ur biltegitik herrira ura ekartzen duen sarea da. Mikrozentuz-

ko hodiak dira eta, osasunagatik, lehentasunezkoa da hodiak aldatzea. Gure esperantza da hurrengo legegintzaldian lan horiek egitea". Izan ere, proiektuari gobernuak emandako puntuazioaren arabera zerrendan nahiko goian kokatuta dago. Beste udalen batzuek lanak egiteari uko egin edo gobernuak finantziarioa handituz gero, erreserban dauden lanei birbideratzen die finantziarioa.

Administrazio tramiteak gatzatzen diren bitartean, Uharteko Arakilen milioi bat euro inguruko lanak egiten ari dira gaur egun. 2021eko abenduko euriteek hondatutakoak konpontzeko lanak dira: eskolako teilatu hodiak, dermioko 21 bide eta abar.

San Migelgo erromeriako

San Migel goiaingeruaren agerpenaren eguna maiatzaren 8an ospatzen da. Aurten astelehena denez, hurrengo igandera atzeratu dute uharterek ospakizuna. Eguerdian santutegian meza izanen da eta, ondoren, bazkaria. Egun horretan uharterek gehiagorekin mahaiaren bueltan eseri nahi dutenek udaletxetik pasa beharko dute izena ematera. Horretarako, maiatzaren 4ra arteko epea dago. Udaletik jakinarazi dutenez, helduendako eta haurrendako menuak daude aukeran; aurrenak 24,5 euro balio ditu, atzenak, berriz, 13,5.

Uharteko Arakilgo udaletxea bi egunez itxita egonen da

Asteartean eta asteazkenean, maiatzak 2 eta 3, lanengatik itxita egonen da

UHARTE ARAKIL

Hurrengo hilabete eta erdian hainbat gremioetako langileak Uharteko Arakilgo udaletxetik pasako dira. Txomin Uharteko Baleztena alkateak azaldu duenez, "udaletxearen jardura edo irakiera baimena egunean jartzeko egin beharreko lanak dira". Azaldu duenez, alde batetik, suteei aurre egiteko segurtasun neurriak ezarriko dituzte. "Egurrezko zorua leundu egingen da lehenik eta suteen kontrako berniza emanen dute ondoren. Ke detektagailua ere jarriko da. Hori solairuetan, eskaileretan eta argi zuloan egingen da".

Horretaz aparte, Uharteko jakinarazi du irisgarritasuna hobetzeko "komunean pasabidea zabalduko da, gurgildun aulkian sartzen direnak eroso ibil daitezten". Erorketen kontrako neurriak ere hartuko dituzte bai leihotetan, baita goiko solairuko eskailerako barandan. Azken hori 1,1 metroko altuerara jarriko dute. Eskaileretako barandari eusten dioten zutabeen arteko espazioa txikituko dute, haurrek tartean bururik sar ez dezaten. "Aukera baliatuko dugu bigarren pisu guztia margoitzeko", gaineratu du alkateak. Lanak garagartzaroaren 15erako despidituta egotea espero du.

PORTUKO

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

Aurretik eskatu

xapatero
taberna

Etxeko krocketak eta bokatak

948 460 162 · Etxarri Aranatz



Asteleheneko hainbat mobilizazioetan errepikatuko den keinua. UTZITAKOIA

Langileen Nazioarteko Egunean aldarrikapenek kaleak hartuko dituzte

Aurten ibarrean ez dago deialdirik; sindikatu eta eragileek hiriburuan egingen diren mobilizazioetan parte hartzea deitu dituzte afiliatu eta zaleak. Deialdi horien bitartez nork bere aldarrikapenei bozgorailua jarriko die

DUELA 25 URTE...



Dantzaleku Sakanaren aurkezpena

Atletismoa maite zuten hainbat herritako sakandarrek indarrak batu eta talde bat sortzea erabaki zuten. Atletismoa sustatzea zuten helburu. Dantzaleku Sakanak bere burua aurkezteko ekitaldia egin zuen apirilaren 25ean. Taldeak 88 kide zituen, 58 heldu eta 33 gaztetxo. Lakuntzan eta Altsasun antolatzen diren lasterketetan elkarri laguntzeaz aparte, ibarretik kanpo jokatzeko ziren probetan ikusgarritasun handiagoa lortu nahi zuten.

SAKANA

Maiatzaren Leheneko ekitaldiak astelehenarekin ospatuko dira aurten. Sindikatu eta eragileek beraien proposamenak aterako dituzte kalera.

LAB

Egiturazko krisiak langileen bizimodua zaildu egiten du, kapitalak aberastasuna metatzen jarraitzen duen bitartean. LABek Maiatzaren Leheneko erantzuleak seinalatu eta errotiko aldaketaren beharra plazaratzeko asmoa du. *Antolatu eta borrokatu egiteko beste mundu bat. Banatu, eraldatzeko* leloa duen manifestazioa Iruñeko Gaztelu plazatik aterako da, 12:00etan. Krisiak bata bestearen atzetik kateatzen ari direla nabarmendu dute sindikatu abertzaleak, eta ziurtatu dutenez, "bizitza duinarekin kontrajartzen da egungo eredu

kapitalista zisheteropatriarkala. Kapitalismoan sakontzen jarraitu baino, politika publikoen norabide aldaketa baten beharra" aldarrikatu dute LABetik. Eta haien eredu zein litzatekeen adierazi dute: "bizitza erdigunean jarriko duen eredu ekonomiko eta sozial baterako trantsizio ekosozialista eta feminista". Sindikatuko kideen iritziz, "erabaki politikoak ez dute norabide aldaketa hori bultzatzen. Horregatik, trantsizio ekosozialista eta feminista aldarrikatzen dugu, ekoizpen eta kontsumo eredu aldatu eta zaintza, lana eta ondasuna banatuta, bizitza bizigarriago egiteko".

ELA

Sindikatuak grebak bultzatzen eta soldaten eta pentsioen defentsan borrokatzen jarraituko duela azpimarratuko du Langileen Egunean. *Borrokan, irabazteko. Pentsio eta soldata gehiago, bizi hobek* leloa duen manifestazioa Iruñeko Gurutzeko plazatik 11:30ean aterako da. Sindikatutik azaldu dutenez, "Europar greba uholdea dago; soldaten eta pentsioen alde mobilizatzen ari dira sindikatuak. Grebak ez dira iraganeko gauza bat, batzuek hala esan arren: gaurkotasan handiko tresna dira". Aldi berean, bizi dugun inflazio testuinguruari ere erreferatu dio ELAk: "%15 gehiago ordaintzen dute oinarrizko elikagaiengatik, eta batez beste 3.600 euro gehiago urtean hipo-

teknologik; bankuek, oligopolio energetikoak eta elikadura banatzaile handiek, berriz, aparteko irabaziak izan dituzte. Prezioen igoera oso lotuta dago etekin horien igoerarekin". Sindikatuko kideek adierazi dutenez, "gure lehentasuna langileriaren bizi baldintzak hobetzeko borrokatzea da, soldatak, pentsioak eta zerbitzu publikoak hobetuz. Hori da ELAren ekarpena".

UGT eta CCOO

Bi sindikatuek gaur egungo ekoizpen eredu birpentsatzeko beharra kaleratuko dute astelehenean. Haien Iruñeko egoitzatik abiatuko da Maiatzaren Leheneko manifestazioa, 11:00etan. Haren leloa *soldata igo, jaitzi prezioak, irabaziak banatu* da. Sindikatuetatik adierazi dutenez, "batzuetan lukurreria den prezioen bidegabeko igoera salatu behar da aurten, Nafarroako langileak egunetik egunera gehiago itotzen baititu". Santosek eta Rodriguezek nabarmendu dutenez, "eskubideak lortzeko ahaztu ezin daitekeen bidea da mobilizazioa". Biek "gehiengo sozialarendako lortutako aurrerapenak" zerrendatu dituzte. Bestalde, gaur egungo lehentasunen artean jarri dute "pertsonek politika publikoen erdigunean jarzea. Estatuak protagonismoa izan behar du lehentasuna diren elikadura, hezkuntza, osasuna edo etxebizitza arloetan".

CNT, CGT, Solidari, ESK eta STEILAS

Bost sindikatuek haien afiliatuak eta zaleak Iruñeko Baratzxurien plazatik 12:00etan abiatuko den manifestazioan parte hartzea deitu dute. Mobilizazioak *bide bakarra: batasuna, duintasuna eta borroka* leloa du.

Gehiago

Sozialismoaren eta independen-tziaren alde egiten duen **Jardun** koordinakundeak Donostian deitu du manifestazioa. Mobilizazioak *langile kontraboterea eraiki* leloa du eta Boulebarretik abiatuko da, 19:00etan. **Kontseilu Sozialistak**, berriz, *burgesiaren eta bere alderdien aurtean alternatiba sozialista eraiki* leloa aukeratu du Maiatzaren Leheneko. Iruñeko Antoniutti parkeetik abiatuko da manifestazioa, 12:00etan.



Langileak loreak jartzen lortia plazan. UTZITAKOA

Loreontzien komunitate zaintzarako deia

Babestutako Gizarte Enpleguako langileek herrian barna haiek konpondutako hainbat loreontzi jarriko dituzte. Haiek eta bertan dauden landareak inguruan bizi diren altsasuarrek zaintzeko gonbidapena egin dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik

ALTSASU

Altsasu, Olatzagutiako eta Zior-diko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Gizarteratze Programak *Zaindu dezagun gure ingurunea, zurekin!* kanpaina hasi du. Haren bidez Babestutako Gizarte Enplegu (BGE) programan lanean ari direnek udal loreontziak garbitu, konpondu, tratatu, herrian barna jarri eta haietan loreak landatuko dituzte. Zumalakarregi plazan, Zelaieta Amandrea kalean 15 loreontzi jarriko dituzte. Baina udalaren beste loreontzi batzuen mantentze lanak egin eta haietan loreak jarriko dituzte. Ondoren, altsasuarrei loreontziak eta loreak zaintzera dei

eginez kartelak jarriko dituzte haien inguruan. Altsasuarrak loreontzi inguruak garbi mantentzera edota landareak ureztatzen ere gonbidatuko dituzte.

Begiralearekin

Programaren arduradunak dira Arantxa Erbiti Beloki gizarte langilea eta Maria Razkin Galan gizarte hezitzailea. Razkinek azaldu duenez, "urteroko programa da. Dirulaguntza deialdian berrikuntza egon zen 2022an: begiralea kontratatze aukera. Hala egin genuen, esperientzia ona izan zen, eta aurten errepetatu egin dugu".

Programan bost altsasuar ari dira lanean, gutxienez urtebetez.

Altsasuko Udaleko Obren lantaldean hasi ziren lanean. Baina apirilaren 17az geroztik BGEko begiraleen esanetara ari dira. Begiralearen egitekoa dira: langileek orduak betetzea, atsedena hartzea, zer lan egin behar den jakinaraztea... Erbitik argitu duenez, "batzuek lan esperientzia dute eta barneratuta dituzte lanerako pautak batzuk, baina beste batzuk ez, eta horregatik da garrantzitsua begiralea". Gaineratu duenez, "nabaritu dugu begiralearekin onura gehiago lortzen dituztela, esaterako, jarraipen estuagoa egiten die, haien autonomia lantzen du".

Begiralearekin sei bat hilabete ariko dira lanean. Haren akon-

painamenduarekin aipatutako loreontziez aparte, "herrian beharrezkoak diren beste hainbat lan egingen dituzte, esate baterako, 2022an hasitako kaleko eserlekuen mantentze lanekin segi edo margotze lanak egin", azaldu du Razkinek. Begiralearekin bukatzean udaleko lantaldetara bueltatuko dira bostak, han ikasitakoa praktikan jartzeko. Bitartean programako arduradunek eta begiraleak balorazioa egingen dute.

Gizarte inklusioa

Erbitik azaldu duenez, "gizarte inklusioa helburu duen programa da. Gizarte bazterketan dauden edo horretarako arriskuan dauden pertsonak aldi baterako kontratatzen dira, udalarendako lanean aritzeko". Razkinek gehitu duenez, "parte hartzaileek lan eginez prestakuntza jasotzen dute. Enplegurako jarrera aldatzea sustatu nahi dugu; beraien burua gai ikusi dezatela, dauden egoeratik ateratzeko zer egin dezaketent pentsarazteko".

Erbitiren argibidea: "bukatzeko lan merkatuan enplegua bilatzen laguntzeko baliagarria izatea da helburua. Nafar Lansarera bideratzen ditugu eta haiekin batera pertsonen zentratutako esku hartzea egiten da, beti ere, ditugun baliabideak eta pertsonaren nahi eta beharrak kontuan izanik. Ikastea izan daiteke aukera bat, edo lan egitea bestea". Aitortu duenez, "bukaeran lan merkatuzeko aukera hobeak dituzte, baina sartzea txikia da, profil oso zaila dutelako". Joan den urtean programan izan ziren hamarretik bik bukatu zuten lanean. Gizarte langileak gaineratu duenez, "lortzen dituzten lanek ez diete segurtasunik edo egonkortasunik ematen".

Gazteria arlorako laguntzak jaso dituzte udalek

Etxarrik eta Altsasuk harekin gaztetxoko eta gazteria zerbitzuak finantzatu dituzte

ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gazteria Institutuaren bitartez, 330.000 euro bideratu dira udalek aisialdia eta denbora libre sustatzeko gazte ekintzak gara ditzaten eta, gainera, haien prestakuntza hobe dezaten. Laguntza jaso duten 25 udalen artean daude Etxarri Aranazkoa eta Altsasukoa. Bertako alkate Javier Olló Martinezek azaldu duenez, "dirulaguntza gaztetxokoaren eta Gazteria Zerbitzuen programak finantzatzeko eskatzen dugu laguntza urtero".


Etxarri Aranazko alkate Silvia Maraño Chascok azaldu duenez, dirulaguntza gaztetxokoaren finantzaketara bideratuta dago. Baina, horrekin batera, "udal eraikinen inguruko kanpainatxo bat egiteko ere bada. Haien erabilera ona bulkatu eta herrian dugunaren balioa aitortzeko". Marañoek azaldu duenez, udalarekin batera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko prebentzio teknikari Luzi Gonzalez de Pedroso Saez eta gaztetxokoko begiraleak elkarlanean ari dira. Irudiak Olatz Aldasoro egiten ari da. Alkateak aurreratu duenez, horren guztiaren berri jasoko dute etxarriarrek plazan, maiatzaren 27an.



ZUREKIN 1964- GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA



ALTSASU

678 323 403

• Irura Hiribidea, 48

948 468 026

Zumalakarregi Plaza, 3

670 389 017

• San Juan Kalea, 50

948 562 185

• Otadiko Kristo Deuna, 19

UIHARTE-ARAKIL

691 83 41 36

• Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ

• Postas, 33

945 148 368

• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ

948 461 660

• Kale Nagusia, 4

OLAZI

948 468 755

• Orreaga Kalea, 1

ARAIA

945 314 572

• Andoni Urrestarazu, 3



Maiatzaren 28an berriro hautesontziak erabiliko dira. ARTXIBOA

27 zerrenda aurkeztu dira udal hauteskundeetarako

Sei udalerritan hautagaitza bakarra aurkeztu da eta alkatea zein izanen den zehaztuta dago. Beste zortzi udaletan zerrenda bat baino gehiago daude, eta batean ez da hautagaitzarik aurkeztu. Hamabost kontzejuetatik hamalau berrituko dira

SAKANA

Duela lau urteko udal hauteskundeetan baino bi zerrenda gehiago aurkeztu dituzte alderdiek eta koalizioek udalak berrietzeko. Navarra Suma koalizioa desagitea ekarri du hura osatzen zuten alderdiek hautagaitza gehiago aurkeztea. Maiatzaren 28ko hauteskundeak iritsi arte boto mobilizatzen ahaleginduko dira soilik zerrenda bana aurkeztu den sei udalerritan: Arakil, Irañeta, Lakuntza, Arbizu, Bakaiku eta Urdiain. Sei herrietan alkatea zein izanen den badakite dagoeneko.

Bestalde, bost udalerritan bina hautagaitza aurkeztu dira: Irurtzun (EH Bildu eta UPN), Uhartarakil (EH Bildu eta PP), Arruazu (Independenteak eta UPN), Ergoiena (bi hautagaitza independente) eta Ziordia (EH Bildu eta Geroa Bai). Bi herritan

hiruna zerrenda aurkeztu dira: Etxarri Aranatz (EH Bildu, PP eta UPN) eta Olatzagutia (EH Bildu, PSN eta UPN). Beste behin hautagaitza gehien pilatu duen herria Altsasu da (Geroa Bai, EH Bildu, UPN, PP eta Zurekin Nafarroa).

Nabarmentzekoa da alderdi sozialistak Altsasun ez duela hautagaitzarik aurkeztu. 2019ra arte beti izan ziren zinegotzi sozialistak Altsasuko Udalean. Gainera, 1983tik 1991ra alkate sozialista izan zuen herriak. Hori guztia eten da eta PSNk Sakanan Olatzagutian besterik ez da aur-

UDALETARAKO 264 HAUTAGAIETATIK %55,30 GIZONEZKOAK DIRA ETA %44,32 EMAKUMEZKOAK

keztu hautagaitza. Bestetik, Navarra Suma koalizioa desegin ondoren hura osatzen zuten bi alderdien artean guztira zortzi hautagaitza aurkeztu zituzten, 2019an lau izan ziren. UPN eta PP eskuineko botoen bila Etxarri Aranatz eta Altsasun elkarrekin neurtuko dira. 2019ra arte UPNk zinegotzi bat izan zuen Altsasun.

Berrituko ez direnak

Maiatzaren 28an bi erakunde berritu gabe geldituko dira. Batetik, Iturmendiko Udala. Duela lau urteko deialdian ere ez zen hautagaitzarik izan, ez udaberriko ez udazkeneko deialdian. Nafarroako Gobernuak kudeaketa batzordea izendatu aurretik herritar talde batek bere burua aurkeztu zuen eta foru administrazioak haiek izendatu zituen udal ordezkari 2020ko irailaren

9an. Ordura arte aurreko alkatea aritu zen behin behinean. Orduetik ari dira udala kudeatzen, eta udazkeneko deialdira arte jarraitu beharko dute. Bestetik, berrituko ez den beste erakundea Zuhatzuko Kontzejua da, ez baita hautagaitzarik aurkeztu. Beraz, Juan Pedro Arregi Sarasak kontzeju presidente izaten segituko du udazkeneko deialdira arte.

Generoa

Ibarreko hamalau udaletako 114 zinegotzi aulkiak betetzeko 27 zerrenda aurkeztu dira, guztira 264 hautagai. Haietatik 146 (%55,30) gizonezkoak dira eta 117 (%44,32) emakumezkoak. 27 zerrendetatik 15etan alkategaia gizonezkoa da (%55,56). Beste 9 hautagaitzatan emakumezkoak dira alkategaiak (%33,33). Gai nontzeko hiru (%11,11) hautagaitzak Irañetan eta Arruazun aurkeztu dira. Bi herriek 250 biztanle baino gutxiago dituzte, hautesleek gogoko dituen hautagaien izen-abizenak markatzen ditu hauteskunde papelean. Beraz, bi herrietan denak dira alkategaiak.

Udal hauteskundeetara aurkeztutako 27 zerrendetatik bostetan (%18,51) daude emakumezko gehiago gizonezkoak baino: Ergoienako bi hautagaitza independenteak, Etxarri Aranatzko eta Altsasuko EH Bildu eta Ziordiko Geroa Bai. Horretaz aparte, Uhartarakilgo EH Bilduren hautagaitzan emakumezko eta gizonezko kopuru bera dago (%3,7).

Kontzejuak

Maiatzen 28ko deialdiarekin ibarreko hamalau kontzeju berrituko dira. Guztietan hautagaitza bakarra aurkeztu da, guztien artean 53 hautagai daude. Berrogeita hamar biztanle baino txikiagoko herrietan pertsona bakarra aurkezten da, esaterako Urritzolan, Ekain, Satrustegin eta Lizarragabengoan. Satrustegi ez beste, gai nontzekoetan egungo kontzejuko presidentea aurkezten da. Haien artean emakumezko bakarra dago, Lizarragabengoakoa. Ge-

KONTZEJUETAKOETAN AURKEZTU DIRENETATIK %62,26 GIZONEZKOAK DIRA, %39,62 EMAKUMEZKOAK

Hautagaitzak herriak

EH Bildu (11)

Arakil, Irurtzun, Uhartarakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia.

UPN (5)

Irurtzun, Arruazu, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutia.

Independenteak (4)

Irañeta, Arruazu eta Ergoienan bi.

PP (3)

Uhartarakil, Etxarri Aranatz eta Altsasu.

Geroa Bai (2)

Altsasu eta Ziordia.

PSN (1)

Olatzagutia.

Zurekin Nafarroa (1)

Altsasu.

hautagaitza kopurua

Urtea	Kopurua
2023	27
2019	25
2015	34
2011	33

neroari erreparatuta, kontzejuak berritzeko aurkeztu direnetatik 33 (%62,26) gizonezkoak dira eta 21 emakumezkoak (%39,62).

Parlamentura

Kontzeju eta udal hauteskundeekin batera Nafarroako Parlamentua berritzeko hauteskundeak ere egingen dira maiatzaren 28an. Guztira 11 zerrenda aurkeztu dira. Eta haietan ere badira sakandarrak. EH Bilduren zerrendan lau sakandar daude: Eneka Maiz Ulaiar (3.), Miren Mendiñueta Lakuntza (28.), Ander Muñoz Garcia (33.) eta Xochtil Karasatorre Mende (40). Geroa

Bairen zerrendan, berriz, hiru: Unai Hualde Iglesias (2.), Javier Olo Martinez (11.) eta Miren Aldaz Agirre (36.)

Bitxikeriak

Hauteskondeetara berriro aurkeztu diren alkateak hamabostetik hamar dira (%66,66), honakoak zehazki: Arakil, Irañeta, Uharteko Arakil, Arruazu, Arbizu, Bakaiku, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia. Bestalde, zerrendei erreparatuta izen ezagun asko ageri dira. Altsasuko Geroa Bairen zerrendan Unai Hualde Iglesias dago, Nafarroako Parlamentuko presidentea. Altsasuko EH Bilduren zerrendan, berriz, Bel Pozueta Fernandez dago.

UPNk ibarreko hautagaitzetan pertsona ezagunak ditu. Arruazukoa ixten José Ignacio López Borderías dago, Nafarroako Gobernuako kontseilaria eta senataria izandakoa. Etxarri Aranzko zerrendaburua Juan Frommknicht Lizarraga, Nafarroako Gobernuaren baitan zuzendari nagusi eta Iruñeko Udalean zinegotzi izandakoa. Zerrenda ixten Cristina Altuna Otxotorena dago, foru parlamentaria izandakoa. Erregionalisten Altsasuko hautagaitzan daude, besteak beste, Yolanda Ibañez Pérez UPNko idazkari nagusia, Jorge Esparza Garrido foru parlamentaria eta Ana Elizalde Urmeneta Iruñean zinegotzi izandakoa. Olatzagutiako zerrendan, berriz, Jose Maria Navarro Fandos, Tuterako zinegotzi ohia, eta Raquel Garbayo Berdonces, Cintruénigoko alkate izandakoa eta foru parlamentaria, daude.

PPren zerrendetan ere izen ezagunak daude. Uharteko ixten, esaterako, José Manuel Hernandez García senataria eta Soriako PPko idazkari nagusia dago. Etxarri Aranzko hautagaitzako azken postuan dago Jose Enrique Sanchez Nuñez, Huelvako PPko idazkari nagusia eta senataria. Altsasun popularren hautagaitza ixten duena Pontevedratik senatari den Javier Jorge Guerra Fernandez da.

UDAL HAUTESKUNDEETARA BERRIRO AURKEZTU DIREN ALKATEAK HAMAR DIRA



Etxarrendarrak kalean. ARTXIBOA

Bi inbertsio onartuta, lau erreserban eta sei atzera

Etxarrenen sareak eta zorua berritzeko lanak eta Altsasuko ur biltegitik San Joan kalera arteko ur ekarria berritzeko lanendako dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak. Aurten hasiko lirateke lan horiek

SAKANA

Nafarroa guztiko udal arduradunak foru administrazioak Tokiko Inbertsio Planeko dirulaguntzak noiz ebatziko zain denbora luze daramate. Atal bat, 2023-2025 aldiari dagokiona, joan zen ostira-lean argitu zuen gobernuak. Toki erakundeek 2026-2028 aldirako inbertsio eskaerak urtearen bigarren zatian aurkeztu beharko dituzte.

Foru administrazioak jakinarazitakoaren arabera, momentuz, bi udalek jasoko dute herri lanak egiteko dirulaguntza. Alde batek, Arakilgo Udala dago. Etxarrenen sareak eta zoladura berritzeko 547.807,29 euroko (BEZ kanpo) aurrekontura duen proiektuak finantziatzea eskuratu du. Gobernuak zehaztutakoaren arabera, lanak aurten hasiko dira.

Bestetik, Altsasuko Udalak ere finantziatzea lortu du Ameziako ur biltegitik San Joan kalera arteko ur hodia berritzeko. Ur ihes ugari daude bertan eta horiekin bukatu nahi du udalak. Horretarako 823.716,05 euroko (BEZ kanpo) proiektua du. Milioi erdiko dirulaguntza jaso du gobernutik, "jaso genezakeen gehiena", azaldu du Javier Olo Mar-

tinez alkateak. Gaineratu duenez, "pozik gaude eta aurten obrarekin hasi beharko dugu, nahiz eta espero dugun Gobernuak malgutuko dituela Toki Inbertsioen Planari buruzko Foru Legeak berak ezartzen dituen epeak; izan ere, ebazpena atzeratu denez eta legegintzaldia akabera dela kontutan izanda, toki entitateek zaila izango dute gaur egun legeak aurreikusten diren epeetan justifikatzea". Ollok gaineratu duenez, "nahiko genukeen Nafarroako Gobernuak askoz lehenago ebatzi izan balu toki entitateen eskaera, eta ez legealdia amaitu baino hilabete bat lehenago".

Erreserban gelditu diren lanak dira: Arbizuko Fernando Urkia kaleko sareak eta zoladura berritzea, Uharteko Itxesia eta Errekabitate kaleetako sareak berritzea, Urdiaingo Sagardia kaleko sareak eta zorua berritzea eta Iturmendiko Santa Marina eta Txorralde kalekoak. Onartu ez direnak dira Hiriberrin sareen zati bat berritzea, Urdiainen baratzte gunean ur kolektorea berritzea, Altsasuko Gipuzkoa eta Bakea kaleko zati banatan sareak eta zorua berritzea eta Ziordiko Dona Maria eta Mirariko sareak eta zorua berritzeko lanak.

FESTAK

ALTSASU

ALDE ZAHARREKO EUSKAL FESTAK

19:00 Bertso pilota: Ados Pilotaren, Udaberriko emakumezkoen esku txapelketa.

Altsasuko Udalak antolatuta.

23:00 Kontzertuak: Gli Ultimi, Aingura eta Diraki, gaztetxean.

Altsasuko Gazte Asanbladak antolatuta.



DIRAKI



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 28

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza.
Ikasturteko azken aurrekoa.
17:30etik 20:30era, Intxostiapunta
gazte gunean.

ALTSASU Dantza emanaldia.

Altsasu BHIko, Korazonistas ikastetxeko
eta Andra Mari eta Iñigo Aritz
ikastolako DHB2 eta DBH1 klaseetako
ikasleen eta Dantzaz konpainiaren *Guri
dagokiguna* dantza ikuskizuna,
Oholtzara salto programaren barruan.
18:00etan, Zumalakarregi plazan
(eguraldi txarrekin Zelandi
kirolegian).

IRURTZUN Hitzaldia.

Kontseilu Sozialista *Sakanaren
Maiatzaren Lehena eta
sozialismoaren beharra* hitzaldia.
18:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Aurkezpena.

Aixita gaztelua: Arakilgo zaindari
ibilbide birtualaren aurkezpena Iñaki
Sagredo historialariarekin.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

Kontseilu Sozialista *Sakanaren
Maiatzaren Lehena eta
sozialismoaren beharra* hitzaldia.
19:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Mustutzea.

Lakuntzako liburutegi berriaren ate
irekiera.
19:00etan, liburutegian.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Etixeraren *Azken ostirala* kontzentrazioa.
19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Kontzentrazioa.

Etixeraren *Azken ostirala*
kontzentrazioa.
20:00etan, San Martin kalearen 7.
zenbakian.

ARBIZU Kontzentrazioa.

Etixeraren *Azken ostirala*
kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ
Kontzentrazioa.

Etixeraren *Azken ostirala*
kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 29

IRURTZUN Mendi lasterketa.

XXXII. Sakanako Ibilaldia III. Ochoa de
Olza memoriala mendi lasterketa,

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

*Air gaurkotasunezko filmaren
emanaldia*
Ostirala 28 19:00
Igandea 30 19:30

*Los tres mosqueteros: Dartagnan
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia*
Osteguna 4 19:00
Ostirala 5 19:00

Atakondoatik. Helmuga: Foru plaza.

Hiru ibilbide:

06:00 Luzea: 54,300 km.

08:00 Laburra: 25,5 km.

09:30 Txikia: 14 km.

LAKUNTZA Eman
arnasa gureari.

*Euskara eta hezkuntza
jardunaldia, Andra Mari Ikastolak
Nafarroa Oinezaren ekimenean baitan
eta Sakanako Mankomunitateak
antolatuta, kultur etxean.*

09:15 Harrera.

09:30 Euskararen arnaguneen
erronkak mahai ingurua.

11:00 Atsedena.

11:30 *Nafarroan D Eredua*
arnasberritzen mahai
ingurua.

ALTSASU Gazte agenda.

Birzi sortu birziklatze tailerra.
18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

IRURTZUN Dantzaldia.

Dantza libre gaua Oskar Estanga
disco jartzailearekin.
22:30ean, Pikuxarren.

IGANDEA 30

IRURTZUN Ikuskizuna.

Baby esferic Avoon konpainiaren
haurxoendako *Lurraren inguruko
ikuskizuna*.
12:00etan eta 17:30ean, kultur
etxean.

ETXARRI ARANATZ Antzezlan.

Frontona ikuskizuna. Kantxan bi
pilotari daude, kontrakantxan beste
hainbat pertsonaia: artekaria, epailea,



OLAZTI Mugarik gabe Nafarroa
elkartearen *Baratzekritikoa*
erakusketa.
Maiatzaren 5era arte.
Liburutegian.

ALTSASU *Liburuaren astea:*
*Saharako liburutegiak ezagutu
nahi?* Bubisher proiektuaren
erakusketa.
Maiatzaren 15era. Liburutegian.



ETXARRI ARANATZ Iñaki
Pikabea *Piti* preso ohiaren
Ekinaren Ekinez artelanen
erakusketa, *Pello Mariñelarena*
30 urte gogoan, *Sorkuntza eta
Espetxea* programaren barruan.
Maiatzaren 5ean, 6an, 7an eta 12an.
Ostiralean 18:00etatik 20:00etara eta
asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta
18:00etatik 20:00etara. Kultur etxean.



ALTSASU Koldo Arnanz tailerra:
30 urtez artearen *magiapean*.
Astelehenetik ostiralera
17:00etatik 20:00etara,
larunbatean ikuskizuna hasi baino
ordu bat lehenago eta igandean
18:30etik 19:30era. Maiatzaren
21era arte. Iortia kultur gunearen
erakusketa aretoan.



ASTELEHENA 1

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 3

ALTSASU Ezkil errepika.

Urteko lehenengo errepika eginen
dute. Irailaren 14ra arte egunero.
12:00etan, Altsasuko elizan.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

Zerokotan elkartearen *Bilduma #2*
poesia liburuaren aurkezpena, tartean
Nerea Balda Sanjuan idazlearen
DardaraK poemategia.
19:00etan, liburutegian.

esataria eta publikoa; gorriak ala
urdinak.

13:00etan, Euskalerriri
frontoian.

OLAZTI Tailerra.

Haurrendako buztinarekin egindako
eskulanak, Olaztiko Gazte
Asanbladan.
17:00etan, Maisuenean.

ETXARRI ARANATZ Film
dokumentala.

Apaiz kartzela film
dokumentalaren emanaldia eta
Xabier Amurizaren solasaldia,
Pello Mariñelarena 30 urte
gogoan *Sorkuntza eta Espetxea*
programaren barruan.
18:30ean, kultur etxean.

Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIDUNAK

1. SARIA

Josu Unamuno Asarta (Altsasu)

2. eta 3. SARIAK

Ana Matxain Eugi (Irurtzun)

Montse Moyano Palomino (Etxarri Aranatz)

Gloria Lopez Urmeneta (Etxarri Aranatz)



Er^viti aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioeserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Azkartasun handiko zerbitzua

MAIATZAK

MAIATZAK 1

BAKAIKU Idoitxarrera zuhaitzaren bila joan, moztu eta Hartzabalera eramanen dute maiatza bertan jasotzeko. **09:00etan, Hartzabalena.**

ZIORDIA

12:00 Urbasara igo, txara bat moztu eta barga gainean jarriko dute.

14:00 Menditik jaitsi eta maiatza Txipudiko parkean jasoko dute.

Ondoren, herri bazkaria, Errekakarte elkartearen.

ETXARRI ARANATZ

Aukeratutako pagoa moztu eta Hartzabalera bizkar gainean eramanen dute, ondoren zutitzeke. **12:30etan, Baizako gainaren bestaldean.**

ITURMENDI Kintoek maiatza herrira eramanen dute eta bertan herritarren laguntzarekin zutituko dute. **18:00etan, plazan.**

OSTEGUNA 4

IRURTZUN Aurkezpena.

Nafarroako Trenaren Aldeko plataformaren tren alternatibaren proiektuaren aurkezpena. **19:00etan, kultur etxean.**

OSTIRALA 5

IRURTZUN Dokumentalaren emanaldia.

Inasa. Irurtzuno langileon indarra eta arnasa dokumentalaren aurkezpena. **18:00etan eta 19:30etan, kultur etxean.**

LAKUNTZA Kontzertua.

Alfredo eta Iker Piedrafitarren kontzertua. **18:30etan, kultur etxean.**

LAKUNTZA Aurkezpena.

EHBilduren hauteskundeetarako hautagai zerrendaren aurkezpena. **18:30etan, plazan.**



OROIGARRIA



Maite Beperet Azpilicueta

I. urteurrena

Gure bihotzetan egongo zara beti

Etxekoak

JAIOTZAK

• **Rosena Duku Sagoe**, apirilaren 21ean Altsasun

EZKONTZAK

• **Juan Pablo Lozano Lasso eta Milagros del Valle Macuare**, apirilaren 24an Lakuntzan

HERIOTZAK

• **Maria Esther Goñi Larraza**, apirilaren 24an Altsasun
• **Jose Mari Esnaola Galarza**, apirilaren 23an Urdiainen
• **Serafin Goicoechea Ollaquindia**, apirilaren 20ean Urdiainen
• **Maria Esther Orcaray Irurzun**, apirilaren 23an Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Etxarri Aranatzen pisu zentrikoa salgai: hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edurne.

IKASTAROA

Boluntariotza formakuntza Altsasuko Biak baten eskutik: Aniztasun funtzionala duten pertsonen aisialdian laguntzeko. Ikastaroa maiatzaren 13an, larunbatean, 10:00etatik 12:00etara egingo da Biak baten Altsasuko egoitzan. Informazioa eta izen emateak 646 123 768 telefonoz edo formacion.biakbat@gmail.com helbide elektronikora idatziz.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Irurtzuno Pikuxar tabernan zerbitzari eta

sukaldari lan poltsa: Asteburuetan eta udan lan egiteko gehien bat. Esperientzia baloratzen da eta euskara ezinbestekoa da. Curriculumak jasotzen ditugu tabernan utziz edo pikutaberna@gmail.com helbide elektronikora bidalita.

Jaibuserako arduradunak behar dira: Interesa dutenek bi baldintza bete behar dituzte, adin nagusia izatea eta euskaraz jakitea. Informazio gehiago Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan: Irurtzun aldekoak 605 466 805 tfnora deitu, Etxarri Aranatz aldekoak 679 534 481 telefonora eta Altsasu aldekoak 616 841 995 telefonora.

Altsasuko Udalak 8 langabe kontratatzeko hautaprobea prozesua hasi du: Urte erdiz lanaldi osoan lan egingo dute, lau lorezaintza ofizial lanetan eta besteak zerbitzu anitzetako peoi lanetan. Deialdian interesa dutenek maiatzaren 15era arteko epea dute Nafar

Lansareren Altsasuko bulegoan izena emateko. Informazio gehiago www.altsasu.net web orrian.

Mank-eko kudeatzailea oposizio lehiaketa bidez ordezkatzeko prozesua: Sakanako Mankomunitateak hautapene prozesua zabaldu du kudeatzailea ordezkatzeko, bertan parte hartu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute Sakanako Mankomunitatean maiatzaren 11ko 14:30a baino lehen. Goi mailako unibertsitate titulua, B mailako gidabaimena eta EGA edo baliokidea izatea derrigorrezkoak dira.

LEHIAKETA

ZirTok umore errimatuaren lehiaketa: Bertsozale Elkarteak antolatuta, TikTok sare sozialean euskarazko umore errimatu sustatu asmoz sortutako bideo motz lehiaketa, baita zirtoa (erantzun errimatu barregarria) eta zirtolariak ezagutarazteko asmoz ere. 13 urtetik gorako edozeinek har dezake

parte, nahi adina bideo igota, betiere ZirTok kontua etiketatua. Hiru sari egongo dira 500 euroko bat eta 250 euroko bi. Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte egongo da parte hartzeko aukera TikTok sare sozialean. Informazio gehiago eta eredu ezberdinen bideoak www.zirtok.eus web orrian edo TikToko ZirTok kontuan.

OHARRAK

Arakilgo Udalak gazteendako kooperazio beka deialdia egin du: Garapen bidean dauden lurraldeetan kooperazioa helburu duen gobernu kanpoko erakunde batekin lan egin nahi duten gazteei zuzenduta dago. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 5ean amaitzen da, informazio gehiago Arakilgo Udalean edo www.arakil.eus web orrian.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Angel Armendariz Mugueta

Eskerrik asko zurekin igarotako momentu alaiengatik

Aitzkotzar Elkarteak babatxikien taldea

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6 ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOL PREFERENTEA

29. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu Beti Casedano	0-0
Univ. de Navarra - Etxarri Aranatz	4-0
Lagun Artea - Ilunberri	2-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Amigo	65
10 Altsasu	40
17 Etxarri Aranatz	20
18 Lagun Artea	14

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 29, LARUNBATA

10:30 Lagun A. - Univ. Navarra (*Zelai Berr*)17:30 Lezkairu - Etxarri (*Soto Lezkairu*)18:00 Ilunberri - Altsasu (*Lardan*)

Altsasu, Ilunberri

Beti Casedanorekin puntu bat lortu eta gero, Altsasuk Lagun Artearekin berdintzetik datorren Ilunberri izango du aurkari.

Etxarri, azken partida ahaztera

Etxarri Aranatzek azken aurreko postutik ateratzeko puntuak behar ditu eta Lezkairuren kontra duen guztia emango du.

Lagun Arteak partida zaila du

Etxarriren kontra garaipen sendoa lortu zuen eta hirugarren den Universidad de Navarra hartuko du Lagun Arteak.

EMAKUME PREFERENTEA

KOPAKO 5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Castejon - Altsasu 11-1

SAILKAPENA

EMAKUMEEN KOPA AUTONOMIKOA.

1 Amigo	12
9 Altsasu	3

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 29, LARUNBATA

13:00 Altsasu - Berriozar (*Dantzaleku*)

Altsasuk Berriozar aurkari Kopan

Altsasuk Berriozar arerio zuzena hartuko du Kopako seigarren jardunaldian.

FUTBOL ERREGIONALA

25. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu B - Zizur 0-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Beti Onak B	66
12 Altsasu B	19

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 29, LARUNBATA

12:30 Baztan B - Altsasu B (*Dantzaleku*)

Altsasu B-ren ligako azken jarduna

Sailkapenean azkena den Baztan B izango du aurkari Altsasu B-k azken jardunaldian.

"Boluntario gazte asko hurbildu zaizkigu"

MANOLO MORENO IRATXO ELKARTEKO MENDI ATALEKO ARDURADUNA

MENDIA Larunbateko Sakanako Ibilaldian 1.340 mendizalek eman dute izena.

Ihurtzongo Iratxo elkartera 150 boluntario baino gehiago hurbildu dira laguntza ematera

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Apirilak 29, larunbata, goizean goiz abiatuko den 32. Sakanako Ibilaldia-III. Ochoa de Olza Memorialeko azken prestaketetan murgilduta daude Irurtzongo Iratxo elkartereko kideak eta boluntarioak, Iratxoko mendi ataleko arduradun Manolo Moreno buru dela.

Oso arrakastatsua izango omen da aurtengo edizioa.

Bai. Hasieran zalantzak izan genituen, izen ematea oso mantso ziholako. Apirilaren 20an, osteguna, 671 mendizale zeuden izena emanda, eta larritzen hasi ginen. Ez zen mugimendu handirik ikusten. Porra eta guzti egin genuen, pentsa. Nik 950 partaide izango zirela jarri nuen porran. Apirilaren 23an, igandea, saltoa eman zen, 893 partaide, apirilaren 24an milakoa gainditu genuen (1.111) eta asteartean, apirilak 25, izena emateko azken egunean, 1.329 zenbatu nituen. Izena online ematerakoan askotan ez da prozesua behar bezala bukatzen, eta datu horiek errepasatu ondoren –oraingik ere aldaketak egon daitezke–, aurten 1.340 mendizalek eman dutela izena ziurtatu dezakegu: 444k Ibilaldi Luzean, 656k Ibilaldi Laburrean, eta 240k Ibilaldi Txikian. Porra alde handiz galdu dut (kar, kar).

Horrenbeste jenderako hornidura prestatzea ez da txantxa izango.

Aste honetan aritu gara fruta eskatzen: 190 kilo platano, 160 kilo laranja, 60 kilo tomate... zenbaki potoloak dira. Aurten urte berezia da, Sakanako Ibilaldia aldi berean III. Ochoa de Olza Memoriala delako, eta SOS Himalaya Fundaziotik elikagai asko lortu dituzte dohainik: galleta txokolatedunak, fuet, patata tortillak, txorizoak 80 kilo eta txistorra 100 kilo... Horretaz gain, fruitu lehorrak, txokolata, pastak, freskagarriak... denetarik eskaintzen dugu.



Manolo Moreno, eskuinean, Sakanako Ibilaldiaren aurkezpenean, Aitor Larrazarekin.

"IBILBIDEA ZORAGARRI DAGO; NIK EZ DITUT MENDI HAUEK HAIN BERDE SEKULA SANTAN IKUSI"

Salda ere badago, mendizaleek asko eskertzen dutena.

Bai, hotza egiten badu, gehiago. Uharte Arakilgo eta Madozko hornidura guneetan eskaintzen dugu salda. Aralar santutegiko aterpean kafea jartzen dugu eta gazta eta txorizo pintxoak. Zenbat boluntariok lan egingo dute Sakanako ibilaldian? Aurreko lanak eta larunbateko kontuan hartuta, 150-160 inguruk, boluntario asko. Gauza harrigarria gertatu da aurten: jendeari ez dugula laguntza gehiagorik behar esaten aritu gara. Aurten jendea soberan dugu. Azken egun hauetan jende asko ibili da bideak garbitzen, ibilbidea markatzen... horietako askok Sakanako Ibilaldia egingo dute. Egunean bertan 90-100 pertsona inguru ibiliko gara lanean.

Zergatik gorakada hau? Jende gaztea erakarri al duzue?

Orain arte Sakanako Ibilaldian antolaketan ibiltzen ginenak, hau da, ilbeltzetik lanean hasten ginenak, dozena erdi bat ginen, guztiak jubilatua. Horregatik, joan zen urtean, 2022an, laguntza eskatu genuen. Iaz bizpahiru gazte hasi ziren eta aurten dozena erdi bat hasi dira. Eta pentsatzen dugu gazte horiek izan direla guztia mugitu dutenak. Sare Sozialetan ere bi gazte aritu dira Doris Vicenterekin batera lanean. Lan handia egin dute. Irurtzongo Mendi Jardueretan Alex Txikonek Sakanako Ibilaldiaren propaganda egin zuen, eta pentsatzen dut SOS Himalaya Fundazioak ere egindakoak eragina izango zuela. Gauza asko dira, faktore asko. Apirilaren 21ean Sakanako Ibilaldiaren egunean lan egingo duten boluntarioekin bilera egin genuen ardurak eta lanak banatzeko, eta jende asko bildu ginen Iratxon, 80tik gora. Eta hori ez da normala. Deigarriena, jende gazte asko zegoela, eta giro oso polita. Izena emana ez zuten boluntarioak ere agertu zitzaizkigun, lan egiteko prest. Oso pozgarria da.

Larunbaterako gehienez 20 graduoko tenperatura eta euria egiteko

Altsasun, Hiru Mendizerrak

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako XIV. Hiru Mendizerrak martxa maiatzaren 13an izango da aurten, ohi baino beranduago. Izena ematea zabalik dago Mendizemendi eta Zirkuitua webguneetan, maiatzaren 6ra bitartean. Martxaren egunean ezingo da izena eman. Hiru ibilbide daude: luzea (46 km, 2.700m+), Nafarroako Iraupen Luzeo Ibilbidean Txapelketan eta EHko Mendi Martxa Luzean Zirkuiturako baliagarria; motza (26 km, 1.200m+) eta erdibidekoa.

%50eko aukera iragartzen dute Irurtzunen.

Mendian ibiltzeko tenperatura bikaina. Ibilbidea zoragarri dago. Nik ez ditut hemengo inguruetakoki mendi hauek hain berde sekula santan ikusi. Joan zen urtean eta aurten udaberria 20 egun aurreratu da. Guk beti apirileko azken larunbatean egin izan dugu Sakanako Ibilaldia. Bera indik jaistean agian pagoren bat ikusten zenuen animatu nahian... baina beste guztia mugitu gabe zegoen. Orain dena berde dago. Esandakoa, 20 egun aurreratu da udaberria. **Jende asko martxa ikustera hurbiltzen da: Uharte Arakil, San Miguel, Madotz, Irurtzun... Zein toki gomen-datuko zenuke?**

Ibilbide Luzean, San Migelera, azkeneko aldapatxo hori ikustera joatea polita izaten da. Korrika egiten dutenak lehenago heltzen dira, baina 11:00etatik aurrera pasatzen da gehiengo. Eta Ibilbide Motza ikusteko, Madozko portua igota, Madoz herri aldera jotzen du errepideak bihurtzeko eskuinaldera eginez, baina ezker aldera egiten badugu, Agiri aldera, balkoi hori leku zoragarria da. Zalantzarik gabe, hor jarriko nintzateke. Paisaia zoragarria da. Ibilbide Luze guztia ikustea da, Beraian, Aralar... **Bukaeran, Irurtzunen, giro ederra.** Hori espero dugu. Kupela jartzen dugu, auzate ederra... Lehenengoak ordu bata inguruan hasiko dira heltzen, eta azkenekoa iristeko 20:00-20:30ak izan daitezke.

Ikuskizuna eta emozioa Olaztiko karraketan

AUTOMOBILISMOA Mattin Villares eta Alain Agirre (Clio Maxi) izan ziren azkarrenak V. Olaztiko Rallysprintean (15:19.300). Sakandarrek maila oso ona eman zuten eta Arkaitz Irigoienek eta Raul Lopezek egin zuten denbora onena (16:00.800)

Maider Betelu Ganboa OLAZTI

Euria egingo ote zuen zen pilotu eta kopilotuen kezka nagusia asistentzia gunean. Lehorreko gurpilekin hastea, eta badaezpada eurikoak prest izan. Baina ateri eutsi zion eta baldintza onetan jokatu zen Sakana Motorsport eskuderiak antolatutako V. Olaztiko Rallysprinta. Olaztiko herri gunean hasi, alde zaharreko kale eta bihurgune estuetatik pasa, eta Clinker ondoko bihurgunean egin zuen aurrera ibilbideak, Urbasako portuko Altamira igo eta jaisteko. 5,390 kilometroko ibilbideak denetarik zuen: maldak, bihurguneak eta Olaztiko karrika ederrak. Motorzale ugari bildu ziren Olaztiko kaleetan eta Altamiran proba jarraitzera.

Bi sakandar Top Tenean

Guztira 41 pilotu zeuden izena emanda, baina horietatik 39k lortu zuten proban aritzeko baimena, epaileen egiaztapenak



Sakana Motorsporteko Urko Berdud eta Mikel Rivero, Altamirara bidean.

gainditu eta gero. Ibilbidea lau aldiz osatu beharra zuten, eta denbora guztien baturarekin erabaki zen azken sailkapena. Malerreka eskuderiako Mattin Villares pilotua eta Alain Agirre kopilotuak (Clio Maxi) lortu zu-

ten rallysprinta irabaztea, lau tartetan gailendu eta gero (15:19.300 minutu). 3 segundo atera zizkieten Kintoa Motorsporteko Iker Etxeberriri eta Aitor Antoñanari (BMW3 E36, 15:22.600). Euren taldekide Iker



Arkaitz Irigoien eta Raul Lopez, lehen sakandarrak. UTZITAKOA

Santesteban eta Miguel Narvaez (BMW E36) hirugarren izan ziren (15:53.400).

Sakandarrek maila oso ona erakutsi zuten. Sakana Motorsporteko Arkaitz Irigoienek eta Raul Lopezek (Clio) egin zuten denborarik azkarrena (16:00.800), eta egindako lanarekin "oso pozik" dago bikotea. Formula Libreko 10. klasean bigarrenak izan ziren, eta scratch edo sailkapen orokorrean hirugarren postuan kokatu zituzten. Sakana Motorsporteko Urko Berdud eta Mikel Rivero (Clio Sport) scratchean zortzigarren sailkatu ziren (16:26.900), euren kategorian, laugarren klasean bigarren. Iker Askargorta eta Iñigo Galarza (Opel Astra) sailkapen orokorrean hamargarren izan ziren (16:40.100), eta bigarren klasean bigarren.

Irteera hartu zuten 39 taldeetatik 28 sailkatu ziren eta 11 autok proba utzi behar izan zuten. Gainontzeko sakandarrei dago kienez, Sakana Motorsporteko

Ander Gurmindu eta Asier Cruz (Clio Sport) hamalagarren sailkatu ziren (17:17.400), lehen klasean bigarrenak. Asier Juanez eta Josu Omos (Clio Sport) scratchean hamabosgarren izan ziren, bigarren klasean hirugarrenak eta Nafarroako Junior Txapelketako sailkapenean lehenak. Euren helburua Olaztiko Rallysprinta despeditzea zen, eta hala egin zuten, lan polita egin.

Ekai Perez altsasuarra Escuderia Agurain taldeko Andoni Elizondo pilotuaren kopilotua izan zen (Ford Focus). Formula Libreko kategorian lehiatu ziren, eta hamabosgarren postuan sailkatu zituzten, Formula Libreko 10 mailan hamaikagarren (18:05.500).

Hurrena, Urbasako Igoera

Sakana Motorsportek lasterteren balorazio ona egin du eta datorren hitzordua prestatzen hasi da: urriaren 8an jokatu den Urbasako Igoera mitikoa.

Datozen hitzordu garrantzitsuak prestatzeko plaza bikaina

GIMNASIA ERRITMIKOA Olaztiko kiroldegian 140 gimnasta bildu ziren Kluben Arteko Ligaren bigarren fasean

Maider Betelu Ganboa OLAZTI

Igandean Kluben Arteko Ligaren bigarren fasea jokatu zen Olaztiko Erburua kiroldegian, Olaztiko Sutegi klubak antolatuta. Lehen fasea Agurainek hartu zuen, martxoan. Iskiza Sakana Gimnasia erritmikoko talde guztiek, Arbizuko eskolak, Iturmendiko taldeak, Sutegi taldeak eta Aguraingo Luzatzen taldeak parte hartu zuten Olaztin, guttira 140 gimnasta inguru.

Iskiza Sakanako taldeei dago kienez, eskola mailako gimnastek dantza berriak erakutsi zituzten.

"Aparatu berriak landu eta erabili dituzte, uztaiak eta mazak, kasu" azaldu du Iskiza Sakanako koordinatzaile Olaia Agirrek.

Txapelketa mailako gimnastek haien bakarkako lana azken aldiz erakutsi zuten, banakako txapelketak bukatu baitira. Bestalde, kimu, haur eta kadete mailetak txapelketako taldeek maiatzaren 20an Tafallan erabakiko den Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan defendatuko dituzten ariketak mustu zituzten. "Taldekako modalitatean aritzeak koordinazio garrantzitsua eta



Iskizako talde bat, Olaztiko erakustaldia aurkezteko prest. ISKIZA SAKANA

talde kohesio landua eskatzen du, eta jendaurrean urduritasunak eta bestelako faktoreek eragina dute. Horregatik Olaztiko jardunaldia oso garrantzitsua izan da gimnastendako. Orain Ligan erreparatutako ahulguneak indartzea dagokigu" gaineratu du Agirrek. Oinarrizko jubencil taldearendako, Olaztikoa Santanderren jokatu den Espainiako Txapelketaren aurreko azken erakustaldia izan zen. "Une oso onean daude. Espero dugu Santanderren Olaztin bezain ongi aritzea".

"OLAZTIKO JARDUNALDIA OSO GARRANTZITSUA IZAN DA GIMNASTENDAKO"
OLAIA AGIRRE

Basamortuko titanen erronkara

MENDI TXIRRINDULARITZA / BTT Javier Borregak eta Miguel Angel Ariztegui Marokoko basamortuan jokatu den Skoda Titan Deserten parte hartuko dute Kosner-Saltoki Home taldearekin. Igandean hasiko da BTT-ko munduko erronka zailenetako bat

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU / ITURMENDI

Marsuaren 19tik 26ra Hegoafrikan jokatu den Cape Epic da munduko BTT probarik gogorrena, apirilaren 30ean Marokon abiatuko den Skoda Titan Desert Morocco 2023 probarekin batera. Maiatzaren 5era bitartean jokatuko diren sei etapatan Marokoko Atlaseko goi mailako mendiak eta basamortua gurutzatuko dituzte bertan parte hartuko duten txirrindulariek, 627 km eta 7.000 m desnibel + baino gehiago gaindituz. Javier Borrega Perianez altsasuarrak eta Miguel Angel Ariztegui Galarza iturmendiarrak ametsa bete eta bertan lehiatuko dira, Kosner-Saltoki Home taldearekin.

Ametsa

Kosner-Saltoki Home Titan Desert irabazteko talde faboritoen artean dago. Egungo txapeldun Kenny Looser -bi Titan Desert irabazi ditu eta baita 2022ko Titan Desert Almeria- eta Vera Looser bere bikotea taldeko liderrak dira. Vera Looser 2022ko Titan Desert txapeldunordea eta 2022ko Titan Desert Almeriako txapelduna da, eta duela hilabete pasa Cape Epic mitikoa irabazi zuen. Miguel Indurain Tourreko txapeldun handia ere Kosner-Saltoki Home BTT taldean aritzera animatu da, beste biker handiekin batera, baina taldekide gehienak amateurak dira, Javier Borrega eta Miguel Angel Ariztegui bezala. "Bizikletan ibiltzen garen eza-gunek proposatu ziguten Kosner-Saltoki Home taldearekin bat egitea, Titan Deserten parte hartzeko. Eta biak animatu ginen, munduko BTT probarik gogorrenetakoan aritzea ametsa delako. Ezin genuen sinetsi" kontatu digu Borregak.

Borrega duatloi eta triatloi munduan ibili da azken urteetan, "baina BTTan eman nituen nire lehen pedalkadak". Miguel Angel Ariztegui, aldiz, mendi txirrindulari zaletua da, Altsasu BTT Zeharkaldian eta Monegros bezalako probetan lagunartean amateur gisa lehiatzen dena. Berarendako ere erronka itzela da Atlas mendikatea eta basamortua lotuko dituen proba ikusgarrian aritzea.

Bost hilabeteko entrenamendua Duela bost hilabete egin zieten proposamena, eta abenduaren 1ean hasi zituzten Titan Desert prestatzeko entrenamenduak, taldeak gidatutako plangintza jarraituz. Astean bost egunetan entrenatu dute, asteburuko entrenamenduak luzatuz. "Biok batera entrenatu dugu ahal genuen guztietan, eta polita izan da. Astean zehar ordu erdiko entrenamenduak egin ditugu, eta asteburuan 4 ordu edo 4 ordu eta erdikoak. Entrenamendu nahiko gogorak dira eta bere lana egin dute, sasoi betean gaudelako, fisikoki oso ongi" nabarmendu du Borregak.

Sakanak eta Marokoko basamortu eta mendiek ez dute zerkusirik, "baina hemen dagoenera moldatu gara: Urbasa, Beunde, Urdalur... pistetan gehiago ibiltzen saiatu gara". Titan Desert prestatzeko duatloia eta bestelakoak alde batera utzi ditu Borregak. "Honetan zentratu naiz buru-belarri, proiektu polita

"TITAN DESERTEN ARITZERA PROPOSATU ZIGUTENEAN, EZIN GENUEN SINETSI"
JAVIER BORREGA

delako eta egiten ari nintzenak baino gehiago bete nauelako. Erronka hau une egokian iritsi zait, berriro kirolera engantxatu naizelako".

Euren kasa entrenatzeaz gain, taldekideekin kontzentrazioak egin zituzten Calatayuden, Madrilen, eta marsuaren bukaeran Cambriksen,aldi berean taldearen aurkezpena izan zena. "Harreman ona sortu da gure artean. Guztiak Titan Desert egiteko ilusioz gainezka gaude, eta horrek giro ona sustatzen du".

Disfrutatzera

Kosner-Saltoki Home taldean 40 biker dira guztira, horietatik 34 afizionatu. Haiei mekanikariak eta bestelako langileak gehitu behar zaizkie. Kenny Looser eta Vera Looser txapeldunak gain, Miguel Escolà eta Pilar Fernandez nabarmentzekoak dira, eta baita bikote misto gisa lehiatuko diren Josu Torres eta Ainara Elbusto nafarrak. August Pascualek 17 aldiz osatu du Titan Desert eta "titan legend"-etako bat da, 10.000 km baino gehiago egin baititu. Horregatik aitorza jasoko du Marokon. Bestalde, Miguel Indurain nola ibiliko den ikusteak ere jakinmina piztu du. "Indurainek hanka onak ditu. BTTra animatu da eta ikusiko dugu nola moldatzen den" dio Borregak. Profesionalak aurrean egoteko presioa dute, ez, ordea, taldeko amateurrek. "Guk ez dugu inolako presiorik. Disfrutatzeko eskatu digute, ongi pasa dezagula. Soilik norberak gure buruarekin dugun erronka da dugun presioa".

Bukatzea, eta Unzue laguntzea Javier Borregaren erronka "Titan Desert bukatzea da, eta Juan Carlos Unzuerearen kausan lagun-



Javier Borrega Perianez eta Miguel Angel Ariztegui Galarza, Kosner-Saltoki Home taldeko ekipazioa

tzea". Izan ere, Kosner-Saltoki Home taldeak bere taldeko txirrindulari bakoitzak Titan Desert egiten duen kilometro bakoitzeko euro bateko dohaintza egingo dio ELA gaixotasunaren kontra borrokatzen duen Luzón Fundazioari. "Nik 627 kilometroak egiten baditut 627 euro bideratuko dira fundaziora, gehi beste taldekide egiten dutena. Horrek bultzada ematen di" nabarmendu Borregak. "Dena den, neure burua lasterketan ongi ikusten badut, aurrerago egoten saiatuko naiz. Unean ikusi beharko da" aitortu du, irribarrez. Miguel Angel Arizteguiren helburua proba bukatzea da. "Hori dio, horrekin izugarri poztuko litzatekeela".

Juan Carlos Unzuek berak egingo duten ahalegina eskertu

"BASAMORTUAK ERRESPETU HANDIA SORTZEN DU. EA NOLA EGOKITZEN GAREN"
JAVIER BORREGA

die Kosner-Saltoki Home taldeko txirrindulariei, eta Marokon gertatzen dena jarraituko duela azaldu du esker onez taldera bidalitako bideoan.

Mendi bizikleten abentura raida Erronkarako prest daude Borrega eta Ariztegi, "baina gero basamortuari eta Titan Desert probari aurre egin beharko diogu, eta hori izango da zailtasunik handiena" argi du Borregak. Basamortua ez baita txantxa. Dunak, maldak, area, egunean bero eta gauean hotz... Titan Deserteko txirrindulariek ez dute hoteletan atseden hartuko, etapa bakoitza despeditzerakoan bertan prestatutako haimetan baizik. "Finean, proba Dakar Rallyan oinarritzen da, baina ibilbidea autoekin edo motorrekin osatu beharrean, Titan Deserten mendi bizikletekin egiten dugu. Mendi bizikleten abentura raida dela esan daiteke. Basamortuko arean ibiltzea ez dela erraza diote".

Lehen bi etapak goi mendikoak dira, Atlas mendikatean (89 km eta 106 km). Hirugarren etapa



parekin, Titan Deserterako prest. HOSNER-SALTOKI HOME

mendian hasi eta basamortuan sartuko da, eta etapa nagusia izango da, maratoi etapako lehen sektorea (129 km). Txirrindulariek ezingo dute mekanikarien ez kanpokoen laguntzarik jaso. Laugarrena maratoi etapako bigarren sektorea izango da (133,5 km), bosgarrena dunen artean jokatu da (98 km) eta seigarrena eta azkena etapa gorabeheratsua, Maadideko final klasikoa izango duena (71 km).

Basamortuari errespetu handia

Borregak eta Arizteguik ez dute Marokoko orografia hori ezagutzen, "eta horrek errespetu handia sortzen du. Baita basamortuko klima aldaketa handiak ere. Egunean bero handia, 30-40 gradukoa, eta horrek beldur pixka bat ematen du. Nola aurre egingo diogun beroari bizikletan. Eta gauean hotza. Ez dakigu ere haiman ongi atsedean hartuko ote dugun. Maratoi etapan ez dugu laguntzarik izango eta elikadura eta matxurak konpontzeko materiala eraman beharko dugu gainean. Lo egiteko ez dugu

koltxoirik ere izango. Ea nola moldatzen garen".

Txirrindulariek etapa bakoitzeke ibilbidearen tracka jasotzen dute, "baina nabigazioa egin dezakegu. Hau da, ibilbidean puntu jakin batzuetatik pasa behar dugu, baina puntu horietara heltzeko nahi dugun bidea har dezakegu, tracka jarraitzea ez baita derrigorrezkoa. Jakina, galtzeko arriskua dago, baina baita distantzia laburtzekoa ere. Ardura handia da. Bestalde, etapa batean hasierako tracka eta bukaerakoa emango digute, baina tartekoa ez, eta nabigazioaz orientatu beharko gara".

Neurrian

Lasterketari tamaina hartzea eta neurrian ibiltzea ezinbestekoa izango dute. Batetik, hornidura

"HELBURUA TITAN DESERT BUKATZEA DA, ETA UNZUEREN KAUSAN LAGUNTZEA"
JAVIER BORREGA

ongi zaindu beharko dute. Ura eta elikadura ongi dosifikatu eta neurtu beharko dute, eta behar bezala elikatu, indarrak ongi berreskuratzeko. Gastroenteritisa eta zauriak izaten dira aurkari gogorrenak, eta ekidin beharko dituzte. Bigarrenik, ezingo dira topera ibili, indarrak gorde beharko dituzte. "Lehendabiziko hiru etapetan ongi erregulatu beharra dagoela esan digute, egunak pasatu ahala etapak luze bilakatzen direlako eta indarrak alperrikeriaz galtzeko".

Javier Borregak eta Miguel Angel Arizteguik gaur, apirilak 28, hartuko dute Marokorako bidea. Ilusioz gainezka daude, gogotsu, baina eguna hurbildu ahala urduritasuna ere agertu da. "Semeek ere urduri nagoela nabaritzen dute. Izan ere, azken bost hilabeteak oso mugituak ari dira izaten".

Orain arte Javier Garziandia lakuntzarrak lortu izan du Titan Desert bukatzea. Borrega eta Ariztegui baita ere basamortuko titanak bilakatuta itzultzea espero dugu.



2022ko Skoda Titan Desert etapa baten hasiera. SKODA TITAN DESERT



Bikerrek basamortuari egin beharko diote aurre. SKODA TITAN DESERT



Gaua kanpamenduetako haimatan egiten dute. SKODA TITAN DESERT

Alzheimer Lasterketari futbola batu zaio

ATLETISMOA / FUTBOLA Maiatzaren 14an Josefina Arregi Klinika II. Alzheimer Herri Lasterketa jokatu da eta bezperan Osasuna beteranoen eta Dantzaleku Sakanako selekzioaren futbol partida solidarioa hartuko du Dantzalekuk

Maider Betelu Ganboa

ALTSASU
Joan zen urtean antolatu zen, lehenengoz, Josefina Arregi Klinika I. Alzheimer Herri Lasterketa, *Zure oroitzapenak zeharkatzen* lelopean. Aurreikuspenak gainditu zituen, ia 500 pertsonen parte hartu baitzuten oinezko martxan eta lasterketa herrikoian.

Alzheimer gizarteratu

Aurten maiatzaren 14an jokatuko da Josefina Arregi Klinika II. Alzheimer Herri Lasterketa. Lasterketaren helburu nagusia Alzheimer gaixotasuna gizarteratzea da, eta aldi berean kirola eta ohitura osasungarriak sustatu nahi dituzte, antolatzaileen esanetan "gaixotasunaren prebentzioa egiteko modu onena" direlako. Klinikako kudeatzaile Angel Gardachalek aurkeztu du aurtengo programazioa, Klinikako Lagunen Elkarteko Javier Casteig eta Dantzaleku Sakana klubeko presidente Iñigo Agirre laguntzaileekin batera. Aurtengo edizioak nobedade garrantzitsuak dakar, atletismoari futbola batu baitzaio.

Martxa eta herri lasterketa

Josefina Arregi Klinika II. Alzheimer lasterketak lau modalitate izango ditu: herri lasterketari



Javier Casteig, Angel Gardachal eta Iñigo Agirre, karteekin. UTZITAKOIA

(9,5 km) eta oinezko martxari (8 km), adineko jendearekin eta haurrekin egiteko oinezko martxa laburra gehitu zaio aurten (4 km). Aurten ere O Km dortsala erosi ahal izango da, kirol ekimenean parte hartu nahi ez, baina euren alea jarri nahi dutenentzako.

Oinezko martxak 10:30ean abiatuko dira, eta herri lasterketa 11:30ean, Josefina Arregi Klinikatik. Helmuga, klinikaren izan beharrean, Foru Plazan egongo da. Bukaeran, festa giroan, parte hartzaileei auzatea

eskainiko zaie plazan –saldatxistorra eta gazta–, eta Irantzu Gonzalez dantza eskolako emandiek eta DJ Reimyren doinuak berotuko dute giroa.

Izena ematea, zabalik

Oinezko martxetan, herri lasterketan eta O Km dortsalean izena ematea zabalik dago, maiatzaren 12ra arte, Josefina Arregiren webgunean, Josefina Arregi Klinikaren edo Klinikak Iruñean duen Medikuko Kontsulter Zentroan. Prezioa 10 eurokoa da, modalitate guztietan. Probaren

egunean, maiatzaren 14an, 9:00etatik 10:15era bitartean eman ahal da izena.

Parte hartzaileek kamiseta eta Lacturale produktu sorta jasoko dute opari, eta guztien artean Lekuona jabetxean bi pertsonendako otordua zozkatuko da.

Osasuna vs Dantzaleku

Lasterketa bezperan, maiatzaren 13an, Dantzalekuk Osasuna Beteranoen eta Dantzaleku Sakana Selekzioaren arteko futbol partida solidarioa hartuko du, 11:00etan, ziuurrenik ikusmin handia piztuko duena. Sarrerak 8 eurotan jarriko dira salgai, baina 16 urtetik azpikoek dohain izango dute sarrera. Sarrerarekin lehen mailako Osasunako jokalariek sinatutako kamisetak, Bioracer loteak eta Xume tabernan bi otordu zozketatuko dira.

Dantzaleku Sakana selekzioa

Dantzaleku Sakana selekzioa entrenatzailea Peio Goikoetxea da. Ondoko jokalaria izango ditu bere esanetara: Ekai Urkijo, Angel Vergara, Gorka Martinez, Jesus Irisarri, Ion Lapuente, Gaizka Martinez de Albeniz, Mikel Lakuntza, Hegoi Lakuntza, Mikel Etxaiz, Xabi Mazkiaran, Raul Claver, Igor Barriola, Oihan Garcia, Asier Salgado, Ion Zubiria, Javi Gasanz, Jokin Bereziartu, Ekhi Olabide eta Gorka Pascua.

Klinikako handitze lanetarako

Ekitaldi guztietan jasotakoa Josefina Arregi Klinikako ospitala handitzeko lanetara bideratuko da. Lanek 1,5 milioi euroko aurrekontua dute, eta haiei esker ospitalak hamar ohe gehiago izango ditu, 31 guztira, guztiak Nafarroako Gobernuak kontzertatutakoak.



Xota, kopan aurrera egitea ospatzen. XOTA

ARETO FUTBOLA Xota Kopako hurrengo faserako sailkatu da

Emakumezkoen Senior Mailako Kopako taldeen hasierako fasean bigarren sailkatu da Xota, Txantrea arerio zuzenaren kontrako partida ikusgarria bukatzeko 40 segundoren faltan 2 eta 3 irabazi ondoren. Roberto Martil entrenatzaileak gidatzen duen taldea Kopako hurrengo faserako sailkatu da.

Derbi sakandarra

Gizonezkoen Hirugarren Mailako Kopan, hirugarren jardunaldian Aralar Mendiri 2 eta 3 irabazi zion Ibararte Xotak azken minutuan. Hala ere, Hirugarren mailako kopako lider jarraitzen du Aralar Mendik (6 puntu), Garbayo Chivite Cintruenigo bigarrenarekin puntutara berdinduta. Ibararte Xota hirugarren postura igo da (3 puntu). Kopako laugarren jardunaldian atzera ere Aralar Mendik eta Ibararte Xotak elkarren kontra jokatuko dute, baina kasu honetan apirilaren 29an, larunbata, 12:30ean Irurtzungo Atakondoa kiroldegian.

Txapelketari harrera ederra

AIZKORA Etxarrik Sakanako Aizkolari Txapelketa borrokatua hartu zuen. Eloi Kortxero eta Juanjo Erdozia izan ziren txapelduak (19:09), Arkaitz Jauregiri eta Iker Gorritiri 24 segundo aterata (19:33). Hirugarren Iban Resano eta Goizeder Beltza izan ziren (20:29). Halaber, aizkolari mistoen eta Aitor Oiarbide eta Albaro Zugarondo harri jasotzaileen erakustaldia izan zen.





Makusai taldeko kideak. NEREA DE DIEGO

Makusairen eklektizismoa

"Zerbait desberdina" egiteko nahitik sortu zuten Makusai taldea Arakil eta Irurtzun aldean. Izurdiagako kontzejuko gela batean entseatzen dute eta doinuekin eta letrekin "jolastea" gustatzen zaie, estilo propioa sortuz

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU Makusai Ziako toponimo bat da. Baita Izurdiaga Records-en, kontzejuan musika taldeei uzten diuten gelan, sortu eta entseatzen duen talde bat ere. Tokiaren izenaren "sonoritatea" gustatu zitzaizela esan du Felix Mendia taldekideak, "japoniarra izan daiteke, baina euskalduna da", eta joko horregatik taldeari Makusai izena jartzea erabaki zuten. Duela bost urte inguru sortu zuten Kris Osetek, Remi Etxeberriak eta Mendiak berak. Ondoren, proiektura Iñigo Arburua eta Blanca Izkue batu zitzaizkien; boskotea izan arte, gaur egungo formazioa. Taldekideak Arakilgo, Irurtzongo eta inguruko herrietakoak dira, bateria jolea izan ezik, Zugarramurditik Izurdiagara entseatzera joaten baita. Musika aldetik "eklektikoak" direla azaldu du Osetek.

Makusai taldearen aurretik Hamaika aldiz taldeko kideak izan ziren Oset, Etxeberria eta Mendia. "Julio Sotorekin Euskara egun baterako abesti bat sortu genuen, Sortzen jai baterako beste bat...". Taldea desegin zenean hirurek "zerbait desberdina" egin nahi zutelara erabaki zuten eta proiektu berria hasi zuten. "Letrak eta soinu desberdina bilatzen genuen, baita beste talde osaera bat ere". Aurreko taldetik desberdintzen zuten abestiak sortzen hasi ziren.

Denetarik

"Lehen reggae, ska eta horrelako musika egiten genuen, eta Makusainen estilo propioa bat bilatu dugu", azaldu du Mendiak. "Eklektikoa", gaineratu du Osetek. Mendia: "Hau hasierako planteamendua zen eta nahasketak egiten jarraitzen dugu.

Arrotxapean kontzertu bat eman genuen eta bukatzeko Chavela Vargasen abesti bat jo genuen. Gure erreperatorioan denetarik sartzen da".

Oset abeslaria eta perkusio jolea, Etxeberria baxu jolea eta Mendia gitarra jolea eta ahotsa dira. "Hasieran erritmo kutxa bat erabiltzen genuen, elektronikoa. Ondoren, Patxi Mendinuetaren biolontxelo jolea sartu zen gurekin eta bolada polita izan zen". Pandemiarekin dena eten zitzaizen, eta "indarrarekin" itzuli ziren; elektronikoa alde batera utzi eta batera jolea, Aranburu,

"ABESTIETAN BAKOITZAK GURE ESPARRUA ETA LEKUA DUGU; PUZZLE BAT BEZALA"

eta teklista eta ahotsa, Izkue, sartu ziren.

Abesti sorta "handia" dutela esan dute musikariek, hamasei edo hamazazpi sortu dituzte tarte honetan. "Sortzeko ez gara metodikoak. Edozein modutan izan daiteke". Etxeberriak edo Mendiak "zerbait" prestatzen dute eta gero entsegu lokalera, Izurdiaga Records-era, eramaten dute eta denen artean abestia sortzen dute: "Denon artean egiten ditugu, bakoitzak gure ekarpena egiten dugu eta zerbait jartzen dugu. Bakoitzak gure esparrua eta gure lekua dugu. Puzzle bat bezala abestia osatzen joaten gara", azaldu du Mendiak.

Abestien "berbertsioak" ere egiten dituzte. "Badira abestiak oso egonkorak direnak, baina beste batzuk biziagoak dira eta aldatzen joaten dira. Momentu horretan ikusten ez dugun abesti bat daiteke, ez gaudena eroso jotzen, eta egun batean berriz jotzen dugu eta aldatzea erabakitzen dugu. Berregiten dugu eta gustatzen zaigu".

Ultzamako Larraintzargo estudio batean Iñaki Larraiozek grabatutako diskoa edo "maketatxoa" kaleratu dute, bost abestiz osatuta: *Ondoko belarra*, *Amets gaizto baten koplak*, *Koldarraren sinfonia*, *Bizitza* eta *Ametsaren anatomia*. "Diskoaren formatuak ilusioa egiten zigun. Itxurosoa da, eta argazkiak ikus daitezke". Argazkiak Makusain Nerea de Diego argazkilariak egin zitzen. Oset:

"Aurkezpen txartel bat da". Diskoa oparitzen dute.

Metaforak

Soinua eta hitzak "bilatzen" dituztela esan dute musikariek. "Mezuak ez dira argi-argiak. Hitzekin jolastea gustatzen zaigu". Olerkiak ere musikatzen dituzte, Sarrionandiaren *Haize gorria* eta *Ordu nabarmena*, kasu. Alfonsina Estorinoren olerki pare bat ere abesti bihurtu dituzte, *Bizitza*, esaterako: "Emakume argentinarra zen eta bizitza oso indartsua izan zuen. Uxue Alberdik bere olerkien liburu bat atera zuen eta asko gustatu zitzaidan", azaldu du Mendiak. Letrek "gauza askori" buruz hitz egiten dute: munduaren norabidea, kutsadura, pandemia... Pandemia garaikoa da *Ez zarete beharrezkoak* abestia: "Egun batean mundu batean lokartu eta beste batean esnatu dio".

"Estilo bat definitzeko orduan eztabaidak ditugu. Bakoitzak modu batera ikusten du". Pop rocka dela esan dute, baina New age bezala definitu dute haien musika. "Zergatik ez?".

Zuzenekoak "festa" bat direla esan du Mendiak. "Entsegu lokaleko lana oso polita da, baina jendearek eskaintzea are politagoa da". Landa eremuko eta herrietako talde bat dela esan dute, eta momentuz "gauden moduan" jarraitu eta kontzertuak eman nahi dituzte.



Haize Txikiak Bandako kideak Azpeitian kalejiran. UTZITAKOIA

Haize Txikiak Banda Azpeitiko Banda Gazteen Alardean

Sakanako musikari gazteek osatzen duten bandak apirilaren 23an banden topaketan parte hartu zuen

SAKANAKO

Sakanako Haize Txikiak Banda osatzen duten 49 lagunak Azpeitian izan ziren apirilaren 23an, igandean, ospatutako Banda Gazteen Alardean. Irurtzungo, Lakuntzako, Etxarri Aranazko eta Altsasuko musika eskoletako musikariek osatzen dute Sakanako banda gaztea. Azpeitiko topaketan ibarreko musikariek batera, Azpeitiko bertako, Lezapiko, Errenteriako eta Getxoko banda gazteak aritu ziren. Bandek kalejira egin zuten eta, ondoren, bakoitzak kontzertu bat eman zuen plazan. Bukaeran,

Sagardo Tokian abestia banda guztiek elkarrekin jo zuten.

Haize Txikiak Bandak Sakanatik kanpo egin duen lehenengo irteera izan da Azpeitiko Banda Gazteen Topaketa. Proiektua 2022an sortu zuten Haize Berriak Bandaren baitan, musika eskolatan egiten den lana ikustarazteko, banda musika sustatzeko eta belaunaldi gazteenak errepertorio eta talde mota horrekin lotutako alderdi guztietan trebatzeko helburuarekin. Bi erresidentzia egin dituzte, eta bost kontzertu, tartean Haize Berriak bandaren urteurrenean emandako emanaldia.

Gaztelu izena duen bertso sariketaren hirugarrena

Maiatzaren 6an, larunbata, Pikuxarrek antolatutako bertso sariketa izanen da herriko kultur etxean

IRURTZUN

Aixita III. Bertso sariketa antolatu du Pikuxar euskal txokoak maiatzaren 6an, larunbata, Irurtzungo kultur etxean. Saioa 18:30ean hasiko da kanporaketarekin, eta epaileek emaitza eman bezain pronto buruz burukoia izanen da. Sarrera doakoa izanen da.

Aixita bertso sariketaren beizgarrietako bat da bi bertsolari nafar eta gainontzeko lurraldeetatik bertsolari bana egotea, baita parekidea izatea ere. Hortaz, Aixitaren hirugarren edi-

zioaren oholtza izanen diren bertsolariak honakoak dira: Aitor Etxebarriazarraga bizkaitarra, Amaia Ituriotz gipuzkoarra, Maddi Sarasua lapurtarra, Peru Abarrategi arabarra eta Egoitz Gorosterrazu eta Sarai Robles nafarrak izanen dira. Zigor Gartzia *Zian* arakildarra izanen da gai jartzailea.

Bertso sariketak "oso harrera ona" izan duela esan dute antolatzaileek. Lehenengo txapel-duna Eli Pagola Apezetxea izan zen eta bigarrena Ane Labaka Mayo.

Dantzariak ikastetxean

Oholtzara salto bosgarren edizioa izan da egunotan Altsasu BHI, Andra Mari Ikastolan, Iñigo Aritza Ikastolan eta Korazonistaken. Dantzas konpainiako dantzariak izan dira irakasleak, eta helburua eszenikoak gazteengana hurbiltzea da

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Bost egunez, astelehenetik ostiralera, Dantzas konpainiako zortzi dantzari profesionalak saioak eman dituzte Altsasu BHIko, Iñigo Aritza Ikastolako eta Korazonistak ikastetxeko DBH 2. mailan eta Andra Mari Ikastolako DBH 1. mailan, Oholtzara salto programaren barruan. Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olazitiko udaletako kultur zerbitzuek bultzatutako programa da, Dantzabideak barruan sartzen dena, eta helburua arte eszenikoak gazteengana hurbiltzea da. Programan parte hartu duten zortzi taldek sortutako koreografiak gaur, apirilak 28, ostirala, 18:00etan, Altsasuko Zumalakarregi plazan egingen duten *Guri dagokiguna* ikuskizunean erakutsiko dituzte. Dantzas konpainiak izen bereko emanaldia egingen du ere.

Laura Gomez Latasa Dantzas konpainiako dantzaria Altsasu institutuan irakasle izan da. Hiru urte daramatza erresidentziak egiten, baina lehenengo urtea izan da Sakanan. Esperientzia "interresgarria" da: "Bestearen aldean jartzen gara. Dantzari bezala

ohituta gaude koreografoaren nahiak jarraitzea eta orain beste aldean jartzen gara. Hogeitabat pertsonarekin lan egiten dugu". Oso gustura egon dela esan du.

Txikitan hasi zen dantzan. "Ama dantzaria zen eta pelikulak ikusten genituen eta jantzi ponposo horiek ikusten nituen eta dantza probatu nahi izan nuen". Balleta ikasten hasi zen, eta "oso nagusitan" zaletasun bat baino gehiago zela jakin zuen eta "serio" hartu zuen. Ikastola garaian ez zuen Oholtzara salto bezalako esperientziarik izan, "guztiz kontrakoa, dantza eta artearekin ez geneukan harreman asko". Horregatik esperientziarik honekin "harrituta" dago: "Dantzari profesional bat zurekin dantza egitera dator eta azken egunean emanaldi bat egiten duzu, eszenatoki batean, eta dantzari profesionalen emanaldia ikusten duzu. Oso aberasgarria da".

Aste batean publikoaren aurrean egingen duten koreografia bat sortu behar dute. "Ez dakigu nola egiten dugun". Lehenengo egunean ikasleendako "apur bat arraroa" dela esan du Gomezek, "ez dakite dantza garaikidea zer den eta bat-batean bi dantzari

agertzen dira halako gauza arraroak egiten...". Baina koreografia sinpleekin pixkanaka ikusten joaten dira. "Dantzan sartzen dira eta ikusten dute aurrera goazela". Saioak irauten duten 50 minutuak aprobetxatzen dituzte, eta "kaña" sartzen diete.

Dantza eta gehiago

Koreografia ikasleek sortzen dute, dantzarien laguntzarekin. "Haiendako naturalak diren mugimenduak lantzen ditugu, haien izenak espazioan sortzen eta horrelako pautekin mugitzeko eskatzen diegu, ahal duten moduan". Ikasleen parte hartzea ezinbestekoa da, "ez izatea bakarrik gure kanpoko materialarekin etortzea eta irakastea". Taldearen energia "aprobetxatu" behar dela dio Gomezek.

Koreografia bat ez ezik, bost egun hauetan gauza gehiago ikasten dituzte ikasleek: haien artean errespetatzen, musika entzuten, publiko bezala bestena ikusten, gorputzaren mugimenduak, espazioaren erabilpenak eta hutsuneak betetzen, begirada, koordinazioa... Dantzariak ere asko ikasten dute.



"PROFESIONAL BAT HAIEKIN DANTZATZEN; OSO ABERASGARRIA DA"
LAURA ETA FILIPPO



"KLASEA GALTZEN DUGU, BAINA GAUZA BERRIAK IKASTEN DITUGU"
EKAITZ ETA IRUNE



"PENTSATZEN DUZUNA BAINO GEHIAGO EGIN DEZAKEZU"
IRATXE, EKHIÑE ETA IZARO



Andra Mari Ikastolako DBH 1. mailako ikasleak Oholtzara salto programaren saio batean.

"Hogei bat pertsona nola gidatu, nola egin zurekin denbora guztian egoteko eta inor ez esertzeko. Adibidez, bihurrienari erresponsabilitate bat ematen badiozu, talde guztia irabazi duzu".

Guri dagokiguna deitzen da Dantzaz konpainiak aurkeztuko duen eta ikasleen koreografiarako oinarritu diren lana. Susan Miller koreografoaren lana da eta giza eskubideak ditu oinarri. Ikasleei giza eskubideen inguruan hausnartzeko eskatu diete, ondoren horiek koreografian lantzeko.

Dantzari gazteak

Iruñe Cambero Lizarraga altsuarra eta Ekaitz Berastegi Albi zu unanuarra institutuko DBH 2ko ikasleak dira eta esperientzia "polita" izaten ari dela esan dute. "Normalean ez ditugu horrelako gauzak egiten, zerbait desberdina da. Jendeak dio klaseak galtzen ditugula; klasea galtzen dugu, baina gauza gehiago ikasten ditu-

gu". Berastegik euskal dantza egiten du, eta Camberok lehen dantza egiten zuen. Dantza saioak "ongi" daudela esan dute. "Lehenengo luzaketak egiten ditugu lesiorik ez edukitzeko eta gero oinarritzko mugimenduak egiten hasten gara". Lehenengo saioak, behintzat, errazak izan direla diote. Koordinazioa izan da erronka handiena. Gaurko emanaldirako gogoia dute.

Andra Mari Ikastolako DBH 2. mailak parte hartu behar zuen programan, baina ikasbidaian zeudenez, DBH 1eko ikasleak aritu dira. Tartean Iratxe Mendoza Gallegos, Ekhiñe Karasatorre Garmendia eta Izaro Zelaia Erdozia. Oholtzara salto esperientzia "polita" dela esan dute. "Saioak dibertigarriak dira eta kirola egiten dugu". Poliki-poliki koreografia sortuz joan dira, hizkiak mugimenduarekin sortuz. Gorputzarekin "gauza asko esan" daitezkeela ikasi dutela

esan dute, baita "pentsatzen duzuna baino gehiago" egin dezaketela ere. Irakasleei dagokionez "oso profesionalak" direla esan dute. Klasekideekin gehiago harremantzeko ere lagundu die dantza saioak. Emanaldirako gogoia dute, baina "urduri" daude: "Gure klasekideak ez ezik ikastetxe gehiago egongo direlako".

Iñigo Aritza Ikastolak lehenengo aldiz parte hartuko du programan. Maddi Reca Oraa eta Urko Amillano Santana DBH 2. mailako ikasleak dira eta esperientzia gustatu zaiela esan dute. Rueca: "Etxean dantza egiten dut eta espresatzeko asko gustatu zait". Amillano: "Nik ez dut dantzarik egiten eta koordinatzea kostatu zait, baina aurrera". Hasieran "pixka bat zaila" ikusten zutela aitortu dute, baina azkenean koreografia ateratzen joan dira. Lotsak alde batera utzita gaurko emanaldian gustura ariko dira. "Ez nuen horrela izatea espero, baina gauza berriak ikasteko gustatu zait", esan du Ruecak.

Korazonistak ikastetxearen lehenengo Oholtzara salto da ere. Imanol Ramirez Santano DBH2. mailako ikaslea da eta esperientzia "ona" dela esan du, "pixka bat klaseetatik aldatzeko". Gaurko emanaldian ez du parte hartuko beste eskolaz kanpokoak dituelako, baina koreografia "pixkanaka" prestatzen joan direla esan du. Lehenengo aldia izan da dantza egin duela, eta mugimendu berriak ikasi dituela esan du. "Esperientzia gustatu zait".



"EZ GENUEN HORRELA ESPERO, BAINA GAUZA BERRIAK IKASI DITUGU"
MADDI ETA URKO



"ESPERIENTZIA ONA IZAN DA, ZERBAIT DESBERDINA EGITEKO"
IMANOL

BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Langile borroka



UTZITAKOIA

Final handirako txartela

Sua, Lamiak eta Oihuarima taldeak Zure ametsa bizi txapelketaren Avilako finalerako sailkatu ziren. Lehenengo aldia zen Sua eta Lamiak, Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako aurreratuen taldeak, txapelketa batera aurkeztzen zirela. Dantza garaikideko jubenilen kategorian lehiatu ziren. Bestetik, Open kategorian Oihuarima taldeak parte hartu zuen.

"Bezeroak soinekoarekin identifikatzea nahi dut"

Atelierren ezkongai eta ospakizunetarako moda egiten du Joseba Huarte Mayora diseinatzaileak. Norberaren arabera soineko pertsonalatuak egiten ditu Izurdiagako tailerretik. Udan lehenengo ezkongai bilduma aurkeztuko du

Erkuden Ruiz Barroso IZURDIAGA

1 Zer da Joseba Huarte Atelier?

Bezeroa eta biok elkartzen garen toki bat da, bertan, lehenengo elkarrizketa baten bidez soinekoa nolakoa izango den garatzen joaten naiz. Konfiantzazko toki bat, bezeroa etxean bezala egotea nahi dut. Eroso sentitzea ezinbestekoa da. Lehenengo zita konpromisorik gabekoa dela esaten diet.

2 Ezkongai soinekoen diseinatzailea zara.

Ez bakarrik ezkongaiena, ospakizun berezietarako jantziarena ere bai. Txikitatik ezkontzek arreta eman didate. Emozio handiarekin bizi nituen ezkontzak, eta hori gutxitara joan naizela. Nafarroan badira atelier oso onak, baina sentitzen dut Iruñea atzean gelditzen ari dela beste hiriburuekin alderatuta. Emakumeak zerbait desberdina janzteko aukera izatea, norberaren gustukoa, nahi dut; multimarka denda batera joan behar ez izateko.

3 Non duzu atelierra?

Izurdiagako etxean daukat. Hasiberria naiz, aurreko urtean hasi nintzen, ezkontzen post-covid gorakada izan zenean.

4 Zergatik moda diseinatzailea? Zer behar du diseinatzaile batek?

Betidanik moda gustatu izan zait, eta egia da janzteko moduagatik nabarmendu izan naizela. Iruñean Moda diseinu gradua egin nuen. Diseinatzaile on bat izateko denetarik jakin behar duzu: patronajea, moztzen, josten... Soineko bat burutik errealitate-eramateko oso ongi jakin behar duzu nola egin. Gaur egun gorputz desberdinak azaleratzen ari dira, baina modelo perfektu bat soineko batekin ikusten duzunean,



Joseba Huarte diseinatzailea. UTZITAKOIA

pentsatzen duzu: "nola geratuko zait niri?". Garrantzitsua da gorputzaren estudioa egitea. Argia ez den jendeak ere eskubidea du eder eta ongi ikusteko, janzteko eta sentitzeko.

5 Nolakoak dira zure diseinuak?

Egiten dudana diseinu bakoitza bakarra da. Lehenenbiziko aldiz ezkongai bilduma aterako dut, baina bestela diseinu bakoitzak bezeroaren izaera erakusten du. Soinekoarekin identifikatuta sentitzea nahi dut, esatea "ni naiz". Baserritar ezkongai jantzi originalak ere egin nahi ditut.

6 Nolakoak dira aurkeztuko duzun bilduma?

Soineko txuriaren jatorria XIX. mendetik gaur egun arte erakutsiko dut. Lehen dena zen geroz eta gehiago hobe. Gaur egun geroz eta minimalistagoa hobe. Ez dute oso kargatuak izatea nahi eta erosota-

sunak bilatzen dute. Ez dute bere burua mozorrotuta ikusi nahi. Badago jendea eskatzen duena zerbait kargatuago, baina orokorrean estilo minimalista eramaten da.

7 Nola pertsonalitzen dituzu?

Ideiekin etortzen dira eta barregarria da, emaitzarekin ez duelako zerikusirik. Ez da gauza bera graduazio baterako soineko bat izan edo ezkongaiaren ahizpa izan. Protokoloa ere hor dago. Galderak egiten joaten naiz: lana, gustuak, janzkera... Pixkanaka izaera ateratzen joaten naiz eta zirriborroak egiten ditut. Pixkanaka osatzen joaten gara.

8 Zer dio protokoloak?

Ez da gauza bera ezkontza katedral batean izatea, soineko klasikoagoak baitira, edo lorategi batean izatea, zerbait informalagoa eramateko aukera gehiago daude-eta. Modu oso

orokorrean: ezkontza egunez bada, soineko motzak eta gauzez luzeak. Baina ez dago ezer idatzia eta ez da beti horrela izan behar.

9 Beraz, apurtzearen alde?

Nik ez dut araurik jarraitzen. Prozesu dibertigarria izatea nahi dut. Ausartuko gara? Bai; aurrera. Tendentziak jarraitzen ditut; adibidez, kolore leunak eramaten dira. Kalitatezkoehuneigarrantzia handia ematen diet, eta nabaritzen da. Nik nahi dudana da bezeroak soinekoarekin identifikatzea.

10 Ezkontza garaia da...

Gonbidaturen bat badut, ezkontzako den ez dakien ezkongai bat... Nik ez nuen esan hasiko nintzela, boom-a etorri zitzaidan. Familia eta lagunekin hasi

nintzen. Aurten kanpotik etorri zaizkit eskaerak. Ez dut karga handirik, baina denboraldi honetarako lana badut.

11 Oso gaztea zara. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Mundu honetan, zaila da. Ingaruko jendearekin lan egin nahi dut, eta lan hori ongi egitea. Esfortzu handiko lana da. Gustatu behar zaizu, eta niri izugarri gustatzen zait. Jendeari atelier eta neurritara egindako arropagatik apustua egiteko eskatzen diot. Ez nirea, edozein. Enpresa txikiak gara; bestela dena pikutara joango da. Poltsiko guztietara egokitzen naiz, ez daukat katxe bat. Moda guztiendako izatea nahi dut. Jende guztiak dauka ezkontzeko eta ezkontza batera joateko eskubidea.